



2022
67

EUSKERA

2022
67

IKERKETA ZENBAKIA

IKERKETA ARTIKULUAK

- Eleaniztasuna eta euskara: hegoaldeko haur eta lehen hezkuntza irakasleen usteak eta jarrerak
GARTZIARENA, Mikel eta ALTUNA, Jon
- Euskara, hizkuntza akademikoa: laburpenen sistematizazioa helburu
BEREZIARTUA ETXEBERRIA, Garbiñe eta BOILLOS PEREIRA, Mari Mar
- Irakurle klub feministak: literatur kritika feminista eta kolektiboaren erakusleiho
LASARTE LEONET, Gema eta PERALES-FERNÁNDEZ-DE-GAMBOA, Andrea
- *Huts* kontranimoko gisa: semantika eta zubi kognitiboak
RENERIA URIARTE, Xabier
- Bigarren hizkuntzak Resurreccion M.^a Azkueren kontagintzan
TOLEDO LEZETA, Ana

LIBURU AIPAMENAK

- *Zerbitzariren idazlan hautatuak*
JORAJURIA ITURRIA, Peio
- *One hundred years of Irish Language Policy, 1922-2022*
ARTZA, Jon



EUSKERA



Euskera 2022, 67
1-200



2022
67

EUSKERA

2022
67

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque
Work and Proceedings of the Royal Academy of the Basque Language

IKERKETA ZENBAKIA

EUSKERA



Euskera 2022, 67, 1-200, Bilbo. ISSN 0210-1564

EUSKERA

IKERKETA ZENBAKIA



2022
67
BILBO
ISSN 0210-1564



EUSKALTZAINDIA

EUSKERA AGERKARIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo

Telefona: 94 415 81 55 • Faxe: 94 415 81 44

posta elek.: info@euskaltzaindia.eus • [webgunea: www.euskaltzaindia.eus](http://webgunea:www.euskaltzaindia.eus)

Aldizkari hau beste agerkariekin trukutzen da
Esta revista admite el intercambio con otras publicaciones
Cette revue s'échange avec d'autres publications
This journal can be exchanged for others by agreement

Testuen hizkuntza-orraketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenerako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

ISSN 0210-1564

Lege Gordailua: BI-1244-58

Diseinua: www.ikeder.es

Aurreinprimaketa: Composiciones Rali, S.A.
Costa, 12-14, 7. ezk. - 48010 Bilbo

Inprimategia: G.Z. Printek, S.A.L.

2022ko abenduan inprimatua

EUSKERA AGERKARIA

Euskera Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala da eta 1920. urtetik argitaratzen da. Buletinak Euskaltzaindiaren lana eta bizitza akademikoa biltzen ditu, eta Ikerketa zenbakiak Akademiaren lan esparruetako ikerketa-artikulu originalak, liburu-aipamenak eta antzekoak jasotzen ditu. Ikerketa-artikuluak argitaratzeko, Idazketa kontseiluak, anonimotasuna bermatuz, kanpo ebaluatzaileen iritzia jasoko du.

***Euskera* agerkaria honako aurkibide, zerrenda eta datu-baseetan dago:**

- Azkue Bibliotekaren katalogoan
- Euskaltzaindiko webgunean
- Latindex Katalogoan
- Inguma datu-basean
- ISOC datu-basean
- Linguistic Bibliography datu-basean
- Dialnet datu-basean
- Emerging Sources Citation Index-en (ESCI)

Kalitate adierazleak:

CIRC (2021): C maila

MIAR (2020): 8.0 (ICDS)

La revista *Euskera* es el órgano oficial de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia y se publica desde 1920. El boletín recoge los trabajos y actos académicos de Euskaltzaindia mientras que el número de investigación se dedica a publicar artículos de investigación originales, reseñas de libros y similares. Para publicar artículos de investigación, el Consejo de redacción, garantizando el anonimato, recurre a expertos externos.

La revista *Euskera* está disponible en los siguientes catálogos y bases de datos:

- Catálogo de la Biblioteca Azkue
- Página web de Euskaltzaindia
- Catálogo Latindex
- Base de datos Inguma
- Base de datos ISOC
- Base de datos Linguistic Bibliography
- Base de datos Dialnet
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)

Indicadores de calidad:

CIRC (2021): Categoría C

MIAR (2020): 8.0 (ICDS)

Euskera. 2022, 67. Bilbo
ISSN 0210-1564

La revue *Euskera* est l'organe officiel de l'Académie de la langue basque / Euskaltzaindia ; sa publication a démarré en 1920. Le bulletin présente les travaux et la vie de l'Académie de la langue basque / Euskaltzaindia ; le numéro de recherche quant à lui publie des articles concernant des travaux de recherche, des comptes rendus de livres, ou autres sujets similaires. En ce qui concerne la publication d'articles de recherche, le Comité de rédaction s'entoure d'experts extérieurs à qui il garantit l'anonymat.

La revue *Euskera* est présente sur les catalogues et bases de données suivants :

- Catalogue de la Bibliothèque Azkue
- Page web d'Euskaltzaindia
- Catalogue Latindex
- Base de données Inguma
- Base de données ISOC
- Base de données Linguistic Bibliography
- Base de données Dialnet
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)

Indicateurs de qualité :

CIRC (2021) : Catégorie C

MIAR (2020) : 8.0 (ICDS)

Euskera is the official journal of The Royal Academy of the Basque Language / Euskaltzaindia and has been published since 1920. The bulletin published each year reflects the Academy's work and academic activities, while the investigation number contains original research articles, book reviews and the like. For the publication of research articles the editorial board seeks the opinions of external evaluators, while preserving their anonymity.

The *Euskera* journal appears in the following indexes, lists and databases:

- Catalogue of the Azkue Library
- Website of Euskaltzaindia
- Latindex catalogue
- Inguma database
- ISOC database
- Linguistic Bibliography database
- Dialnet database
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)

Quality indicators:

CIRC (2021): group C

MIAR (2020): 8.0 (ICDS)

Euskera. 2022, 67. Bilbo
ISSN 0210-1564

EUSKALTZAINDIA

EUSKERA AGERKARIA



IDAZKETA KONTSEILUA

Zuzendaria: ANDRES URRUTIA. Euskaltzaindia. Bilbo

ADOLFO AREJITA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JEAN-BAPTISTE COYOS
Iker (C.N.R.S., Bordele 3, UPPA). Baiona

JOSEBA ANDONI LAKARRA
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

ANDONI SAGARNA
Euskaltzaindia. Donostia

PATXI SALABERRI
Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea

ANA TOLEDO
Euskaltzaindia. Donostia

MIKEL ZALBIDE
Euskaltzaindia. Donostia

AHOLKU BATZORDEA

MIXEL AURNAGUE
CNRS, ENS eta Sorbonne Nouvelle Unibertsitatea.
Paris

MIREN AZKARATE
Euskaltzaindia. Donostia

JOXE AZURMENDI
Euskal Herriko Unibertsitatea. Donostia

MARTINE BERTHELOT
Perpignango Unibertsitatea. Perpignan

XARLES BIDEGAIN
Paueko eta Aturri herrialdeetako Unibertsitatea.
Baiona

JOSU K. BIJUESCA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

GIDOR BILBAO
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

IÑAKI CAMINO
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

ANA ETXAIDE
Nafarroako Unibertsitatea. Iruñea

JOSE RAMON ETXEBARRIA
Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo

MAITE ETXENIKE
Universitat de València. Valentzia

PATXI GOENAGA
Euskaltzaindia. Gasteiz

RICARDO GOMEZ
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

MANUEL GONZALEZ
Real Academia Galega. Coruña

MARTIN HAASE
Bambergo Unibertsitatea. Bamberg

JOSE IGNAZIO HUALDE
Illinoiseko Unibertsitatea. Illinois

ITZIAR IDIAZABAL
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

XABIER ITZAINA
CNRS, Centre Emile Durkheim,
Sciences por Bordeaux. Bordele

JOSEBA INTXAUSTI
Euskaltzaindia. Donostia

IÑAKI IRAZABALBEITIA
Elhuyar Fundazioa. Usturbil

JACINTO ITURBE
Euskal Herriko Unibertsitatea. Leioa

JABIER KALTZAKORTA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JON LANDABURU
CNRS, Paris. Kolonbiako Kultura Ministerioa

ALBERTO LOIZATE
Basurtuko Ospitalea. Bilbo

JUAN MADARIAGA
Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea

JOAN MARTÍ
Institut d'Estudis Catalans, Secció Filològica.
Bartzelona

ENEKO OREGI
Eusko Jaurjaritza. Gasteiz

JON ORTIZ DE URBINA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

ROSA MIREN PAGOLA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JOSE ANTONIO PASCUAL
Real Academia Española. Madril

TXOMIN PEILLEN
Euskaltzaindia. Baiona

IBON SARASOLA
Euskaltzaindia. Donostia

MIRIAM URKIA
UZEI. Donostia

JUAN JOSE ZUBIRI
Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea

Teknikariak: JON ARTZA. Euskaltzaindia. Bilbo

IBON USARRALDE. Euskaltzaindia. Donostia

Aholkulariak: JOSEBA ZABALETA eta ERRAMUN OSA (Euskaltzaindia. Bilbo).



EUSKERA

AURKIBIDEA

IKERKETA ARTIKULUAK

- [11-31] Eleaniztasuna eta euskara: hegoaldeko haur eta lehen hezkuntza irakasleen usteak eta jarrerak
GARTZIARENA, Mikel eta ALTUNA, Jon
- [33-62] Euskara, hizkuntza akademikoa: laburpenen sistematizazioa helburu
BEREZIARTUA ETXEBERRIA, Garbiñe eta BOILLOS PEREIRA, Mari Mar
- [63-86] Irakurle klub feministak: literatur kritika feminista eta kolektiboaren erakusleiho
LASARTE LEONET, Gema eta PERALES-FERNÁNDEZ-DE-GAMBOA, Andrea
- [87-114] *Huts* kontranimo gisa: semantika eta zubi kognitiboak
RENERIA URIARTE, Xabier
- [115-153] Bigarren hizkuntzak Resurreccion M.^a Azkueren kontagintzan
TOLEDO LEZETA, Ana

LIBURU AIPAMENAK

- [157-161] *Zerbitzariren idazlan hautatuak*
JORAJURIA ITURRIA, Peio
- [163-171] *One hundred years of Irish Language Policy, 1922-2022*
ARTZA, Jon

Euskera. 2022, 67. 7-7. Bilbo
ISSN 0210-1564



Ikerketa artikulua

Euskera. 2022, 67. Bilbo
ISSN 0210-1564



Eleaniztasuna eta euskara: hegoaldeko haur eta lehen hezkuntza irakasleen usteak eta jarrerak¹

El multilingüismo y el euskera: creencias y actitudes del profesorado de educación infantil y primaria

Plurilinguisme et langue basque : croyances et comportements des enseignants du primaire au Pays Basque Sud

Multilingualism and Basque: beliefs and attitudes of infant and primary education teachers

GARTZIARENA, Mikel

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saila
University of the Basque Country (UPV/EHU)
Didactics of Language and Literature
mikel.gartziarena@ehu.eus

ALTUNA, Jon

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
Hezkuntza Zientziak Saila
University of the Basque Country (UPV/EHU)
Educational Sciences
jon.altuna@ehu.eus

Noiz jaso: 2022-04-10

Noiz onartua: 2022-06-08

¹ Lan honek Eusko Jaurlaritzaren (IT 1666-22) eta Estatuko Ikerketa Agentziaren diru-laguntzak (PID2019-105818GB-I00) jaso ditu.

Ikerlanaren helburua da Hegoaldeko Haur eta Lehen Hezkuntza irakasleek euskara, gaztelania, ingeles eta frantsesarekiko usteak neurtzea honako bost alorretan: bat, norberaren hizkuntza-mailan; bi, hizkuntza bakoitzari emaniko garrantzian; hiru, hizkuntza horiek ikas-teko zailtasunean; lau, ikerketan baliatutako galdetegiko hizkuntza-hautaketan, eta bost, hizkuntza-hautaketa horren arrazoian. Emaitzek irakasleen hizkuntza-usteak eta -jarrerak sakonago ezagutzea ahalbidetuko dute.

Gako-hitzak: eleaniztasuna, irakasleen usteak, Haur eta Lehen hezkuntzako irakasleak, hizkuntza minorizatua, hezkuntza eleaniztuna.

El objetivo del estudio es analizar las creencias del profesorado de Educación Infantil y Primaria del País Vasco peninsular hacia el euskera, el castellano, el inglés y el francés en cinco áreas: una, su propio nivel lingüístico; dos, en la importancia dada a cada idioma; tres, en la dificultad de aprender estos idiomas; cuatro, en las opciones de idioma del cuestionario utilizado en la investigación, y cinco, en el motivo de esa elección de idioma. Los resultados permitirán una comprensión más profunda de las creencias y actitudes lingüísticas de los profesores.

Palabras clave: multilingüismo, creencias del profesorado, profesorado de educación infantil y primaria, lengua minorizada, educación multilingüe.

L'objectif de cette recherche est d'analyser les croyances des enseignants du primaire au Pays Basque Sud vis-à-vis du basque, de l'espagnol, de l'anglais et du français dans cinq domaines : un, son niveau linguistique, deux, l'importance accordée à chaque langue, trois, la difficulté d'apprentissage de ces langues, quatre, les choix de langue du questionnaire utilisé pour la recherche, et cinq, motif du choix de la langue. Les résultats permettront une compréhension plus profonde des croyances et des comportements linguistiques des professeurs.

Mots-clés : plurilinguisme, croyances des professeurs du primaire, langue minoritaire, éducation plurilingüe.

The aim of this study is to discover Pre-primary and Primary Education teachers' beliefs toward the Basque, Spanish, English and French in the South of the Basque Country (Hegoalde) about these five aspects. One, the language level; two, the relevance given to the languages; three, the difficulty to learn the languages; four, the language chosen to complete the survey; five, the reason for choosing the language. Findings in this paper give insight about the beliefs and attitudes towards these languages.

Keywords: multilingualism, teachers' beliefs, in-service teachers, minority language, multilingual education.

GARTZIARENA, Mikel, ALTUNA, Jon (2022). «Multilingualism and Basque: beliefs and attitudes of infant and primary education teachers», *Euskera*, 2022, 67: 11-31.

1. Sarrera

Hezkuntza gakoetako bat da euskararen transmisioan, eta, hein handi batean, hizkuntzaren erabileran ere bai. Jakinekoa da eskolaren zeresana handia dela euskal hiztunari hizkuntza-baliabideak eskaintzeko ardurari. Egitekoak egiteko eta erantzukizunak erantzukizun, ikasleen hizkuntza-ezagutza zabaltzeko buruhausteez itzalpean utzi ohi dute ikastetxeek hizkuntzeekin, eta batez ere hizkuntza gutxituekin, duten zeresana uste positiboak sortzeko eta transmititzeko eginkizunean. Hain zuzen ere, eskolak euskararekiko atxikipen –edo atxikipen ezaren– gune erabakigarriak dira, hots, euskara-hiztun berrien autoestimuan, hizkuntzarekin hertsiki lotutako uste indargarri edo ahultzaileen harrobi izatean.

Azken hamarkadotan, Europan zein nazioartean, irakasleen usteak modako iker-alor bilakatu dira hezkuntza eleaniztunaren esparruan, bereziki hizkuntza minorizatua eleaniztasunaren ekuazioan txertatzen denean. Euskal Herriaren Hegoaldea ez da salbuespen, eta lehen mailako erronka du euskara eredu eleaniztunaren egokitzeko aferan, ereduaren ardatz gisa finkatu eta ahal bezainbeste profitatzeko deman. Euskararen egoera soziolinguistikoari beha, Amonarriek (2019) azpimarratzen du hizkuntza bidegurutzean dela, sarritan egon izan dela, baina oraingoa ekidin ezinekoa dela. Paradigma-aldaketa aipatzen du tolosarrak: ezagutzaren arotik erabilerarenera. Fokua Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemetan jarririk: zeintzuk dira Hegoaldeko Lehen Hezkuntza irakasleen usteak euskararekiko? Eta curriculumeko gainerako hizkuntzekiko?

Esku arteko ikerketa hau doktorego-tesi baten barnean eginiko ikerlana da, eta Hegoaldeko Lehen Hezkuntza irakasleen eleaniztasun-usteak ikeritzen dira euskara izanik erdigune. Honako ikerketak, beraz, irakasleen usteak izango ditu ikergai, ondorengo bost ezaugarriak izanik arretagune nagusi: lehenengoa, norberak bere buruari aitortutako euskara-, gaztelera-, ingeles-, eta frantses-mailei loturiko usteak; bigarrena, lau hizkuntza horiekiko, norberak hizkuntza bakoitza ezagutzeari ematen dion garrantzia; hirugarrena, hizkuntza bakoitza ikasterako orduan, norbanakoak egotzen dion zailtasun-maila; laugarrena, online-galdetegi bidezko datu-jasotzea izaki,

irakasleek inkesta betetzerakoan egindako hizkuntza-hautaketa (euskara, gaztelania eta ingelesaren artean); bosgarrena, hizkuntza jakin bat hautatu izanaren arrazoa. Luze gabe, ikerketak asmo du eleaniztasunaren, usteen eta euskararen bueltan eginiko azken ikerketak ekartzea, testuinguruan jar-tzea eta honako ikerketa ondorioekin zubi-lanak egitea.

2. Oinarri teorikoa

Honako atal honetan, ikergaiari buruzko nozio eta ikuspegi orokorrak ekarriko dira. Horiek guztiak eleaniztasunaren talaiatik eginak izango dira, alde batetik, nazioarteko ikuspegiak eta boladan diren ekarpenak Euskal Herrira ekartzeko eta, bestetik, gurean bertan eginiko azterlanen ondorioak hedatzeko. Hein berean, euskararen egoera soziolinguistikoari men egin eta berau ikergune dituzten lanak aztertuko dira; halaber, Hegoaldeko testuinguruan egindako ikerketa izaki, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAEko) eta Nafarroako Foru Komunitateko ekarpenei egingo zaie bereziki so, eleaniztasunaren, euskara eta jarrearen, usteen nahiz egoeraren azterketa kritikoa egiteko. Ondoren, esku arteko ikerketa honek, fokuan izanik irakasleen usteak gaiaren inguruko ekarpenak eta ikerketak azalduko dira labur-labur.

Azken berrogeita hamar urteotan, Europar Batasunak hizkuntzekin hartutako hainbat erabaki mugarri suertatu da eleaniztasunaren oinarriak finkatzerako garaian, eta, hori dela kausa, erro eleaniztuneko makina bat proposamen aurrera eramane da Mundu Zaharraren alde honetan (Cenoz & Gorter 2019; García & Otheguy 2020). Urteen poderioz eleaniztasunaren definizioa bere egin dute nazioek, estatuek, estaturik gabeko nazioek eta lurraldeek; egonarrizko zizelkariak lez, astiro joan dira moldatzen eleaniztasuna haren lurraldetasunera, egoera soziolinguistikora, eskumenetara eta testuinguru historiko-sozialera. Harik eta egungo eleaniztasunaren noziora iritsi arte, eleaniztasunak betekizun erabakigarria baitu hezkuntzan, akademian eta gizarteetan (Gorter & Arocena 2020). Inolako ezbairik gabe, eleaniztasuna kontzeptu gisa garatu egin da, eta erroetan sakondu du, gizartearen ezaugarri behagarri eta berezko bilakatzeraino.

Eleaniztasunak tartekari-lana du, eta eskolaren eta gizartearen arteko elkar-ulertzean oinarritzko funtzioa dauka, izan ere, haien arteko harremana dialektika bidezkoa da, eta gizartearen ezaugarriok eskoletan islatzen dira (Cenoz & Santos 2020). Euskal testuinguruan, eleaniztasunari gehitzen zaizkio bertako hizkuntzaren transmisioaren, hedatzearen eta normalizazioaren erronkak. Eta horiei aurre egiteko lanabesak, tartea eta aukerak ezberdinak dira hiru administrazioetan (Erdocia 2018). Edonola ere, iraganekeo ikuspegi elebakarrak galbidean daudela esan daiteke (García & Otheguy 2020), eta ikuspegi eleaniztun abegikorrek bide berriak argitu dituzte hizkuntza gutxituen berreskuratze, ahalduntze eta transmisioaren egitas-moei dagokienean (Cenoz & Gorter 2019).

Ildo horretan, inflexio-puntua goiburu bereko bi lanek ekarri dute: *The Multilingual Turn*-ek (Conteh & Meier 2014; May 2014). Izen bereko bi ekarpen horiek iraultza sortu dute eleaniztasuna ulertzeko eta, batez ere, ikertzeko maneran; izan ere, oro har, eleaniztasuna ikuspegi elebakarrarekin ikertua izan da ordura arte. Ezaugarrien artean, eleaniztasunaren hitz-jarduna malgu ulertzen du, hizkuntzen arteko “purutasuna” ekidin, eta eleaniztunak dakizkien hizkuntzei likidotasun propietatea aitortzen die, hizkuntzak helburu komunikatibo eta sozialak baiatauzka, eta eleaniztunak bere esku dauden baliabide linguistiko guztiak darabiltza ekintza komunikatiboetan.

Eleaniztasuna ulertzeko zorua bi ekarpenok izaki, esku arteko ikerketa honen euskarri teorikoa Cenoz eta Gorter-en (2014) *Focus on Multilingualism* da. *The Multilingual Turn*en ulerkeran sakondu egiten du lanak. Ikuspegi eleaniztunak ez ditu hizkuntzak protagonistatzat, aitzitik, hizkuntzen arteko mugak are lausoago ulertzen ditu, eleaniztuna izanik hizkuntzen artean nabigatzaile. Eleaniztunaren ezagupen linguistiko oro da hizkuntza-ikaskuntzaren hauspo, komunikaziorako baliabide, eta paradigma horretan ulertzen du eleaniztuna, inola ere ez eleaniztunak ezagun dituen hizkuntza horien guztien eta bakoitzaren hiztun elebakarraren (natiboaren) mailan. Funtzio soziala jomuga, zuzentasunak hondarreko protagonismoa du; historian zehar, eleaniztuna hiztun-herren gisa kontsideratua izan da, eta eredu berriak hiztun oso bezala ulertzen ditu komunikaziorako, aukera eta baliabide-sorta gehiago eta zabalagoarekin.

Azaldu berri ditugun hezkuntza-berrikuntza eta proposamen pedagogiko aurrerazaleei men eginez, Hegoaldea ez da salbuespen, euskal hezkuntzan aldaketa eta doitze gradualak jazo baitira, Europan hedatzen ari diren eleantiztasun-ikuspegi berri eta abangoardiakoekin. Ezberdintasunak ezberdintasun, esan liteke eredu eleaniztunen aldeko irakaskuntzaren bidean sakontzen ari direla EAEn eta Nafarroako Foru Komunitatean, bilakaturik hiru eleko irakaskuntza beren identitate-zeinu. Hala eta guztiz ere, ikasleak eskolatzeko hizkuntza-ereduari begira, EAeko eta Nafarroako Foru Komunitateko datuek hainbat joera erakusten dute. Alde batetik, EAEn, 2021-2022 ikasturteko datuek adierazten dute Lehen Hezkuntzako ikasleriaren % 77,8 D ereduan eskolatzten dela, % 18,3 B ereduan eta % 3,2 A ereduan (Eustat, 2022); Nafarroan, aldiz, D ereduan eskolatutako ikasleen ehunekoa ez da % 18ra iristen, A ereduan % 15 inguru, B eredua erabat hondarrekoa da eta G ereduan matrikulatzen da ikasle gehien: % 67 (Nastat, 2020). Bi errealitateen arteko aldea hertsiki loturik dago 18/1986 Foru Legearekin, abenduaren 15ekoarekin, euskarari dagokionez (Nafarroako Foru Komunitatea, 1986); eta 159/1988 Foru Dekretuarekin, maiatzaren 19koarekin (Nafarroako Foru Komunitatea, 1988). Halaber, Nafarroako Hezkuntza Sistema Publikoan D ereduan ikasteko eskubidea 4/2015 Foru Legearekin, otsailaren 24koarekin, berritua izan da (Nafarroako Foru Komunitatea, 2015), aurretiko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatu, eta eremu ez-euskalduneko Hezkuntza Sistema Publikoan D eredua hautatzeko eskubidea bermatuko lukeena.

Euskaraz hezia izateko aukerak bi egoera ezberdin ekarri ditu euskararen ezagutzari buruz. Batetik, EAEn euskararen ezagutza % 71,4koa da 16-24 urte bitartekoen artean, % 49,3koa 25-34 artekoenean, eta kopurua emeki gutxitzen doa % 22,4 arte >65 urtekoengan (Nastat, 2020). Bestetik, Nafarroan, euskararen ezagutza zonifikazioaren arabera arras aldatzen da: eremu euskaldunean, % 13 da gaztelaniadun elebakar; eremu mistoan, % 77; eta eremu ez-euskaldunean, % 90 (Eusko Jaurlaritza, 2016). Euskararen erabilerari dagokionez, ezagutza-maila hazi den heinean euskararen erabilerak ez du gora egin, eta euskara bidegurutzean da, palanka eta estrategia berrien beharrean (Amonarriz, 2019). Erabilerari buruzko azken txostenean (Sorolla *et al.*, 2019), esan daiteke euskal eta erdal munduak hibridatu eta

orain arteko ezaugarri soziolinguistikoak nahasten ari direla, eta honako alderdi hauek azpimarratzen dira: gazteek euskara ezagun dute eta biziberitze-prozesuak ari dira gertatzen tradizioz gune euskaldunak ez ziren lekuetan; halaber, hizkuntza-gaitasuna ez da balio hutsezina errealitatea identifikatzeko, hobe litzatekeelarik hizkuntza-identifikazioan sakontzea; globalizazioa eta migrazioa euskararen eremuetan aldaketak hauspotzen ari direla; euskara modernitatearekin lotzearen garrantzia; eta *sandwich efektua* delakoa, errenta eta euskara elkarlotzen dituen, hau da, erdi-mailako klaseetan (irakasleak, funtzionarioak, lanpostu egonkordunak) euskararen erabilera nabarmenagoa dela. Hori dela bide, esku arteko ikerketa honek irakasleen, erdiko klase aktibo horren, hizkuntza-hautaketa eta hizkuntzei atxikitako usteen azterketa du helburu.

Ikerketak ikerketa, mamitsua da euskararen erabileraren eta ezagutzaren artean HUIHEZIn eginiko ikerketa, bertako Hezkuntza fakultatean binomioaren arteko oreka zertan den ikertu baitute (Garcia *et al.*, 2017). Ikerketa-ondorioen artean, honakoak dira esanguratsuenak: bat, hezkuntza-fakultateko kafetegian –leku informalean– erabili da euskara gehien, izanik ikasleak eta irakasleak nahasirik dabilzan eremua; bi, ikaskideen % 66k baino gehiagok darabil euskara, baina erabilera % 37ra jausten da lagunartean; hiru, ikasleek euskararen aldeko jarrera eta ezagutza-maila ona izan arren, ezin da erabilera ziurtatu; eta lau, ikasleen identitate kulturala euskalduna izanik ere, identitate etnolinguistikoa ez dute euskararekin soilik identifikatzen, gaztelaniarekin nahasirik baizik.

Izan ere, euskararen egoera soziolinguistikoa ez da bera Euskal Herri osoan; aitzitik, ezberdintasun nabariak daude. Gai hori ardatz, 2017ko Udako Ikastaroan egindako hiru mahai-inguruak leudeke, Euskal Herriko hiru administrazioen azterketa, sintesi eta erronkak plazaratzeko asmoz (Azurmendi *et al.*, 2018). Ondorioak honako bost puntu hauetan laburbildu ditugu: bat, hiru administrazioek bat egiteko aukera dute euskararen aferan, Nafarroako hizkuntza-politika hastapenetan izanik (Euskarabidea) eta Iparraldean hizkuntza-politikari buruzko erabaki politiko partekatu eta instituzionalerako lehen habeak jarririk (EEP); bi, harreman-hizkuntzan gaztelaniak eragin handia izanik eta berau aldatzea zinez zaila baldin bada ere, egin egingarria da, baina halere kezagarria da haurren artean erabilerak egin

duen beherakada; hiru, euskararen erabilera instrumentala hazi egin da, baina norberaren beste espazioetakoak ez; lau, euskararen aldeko jarrerak gora egin duen heinean, erabilerak ez du joera berdina izan, eta, etorkizun hurbilean, hiztunaren hautua izango da euskaraz mintzatzea, esaterako, Bilbo bezalako hiri batean hamar hiztun berriren artean batek soilik izanik erraztasun handiagoa euskaraz mintzatzeko; bost, jarrera eta usteak alde ditu euskarak, eta baliabideak nahiz eragileen (publiko eta euskalgintzaren) elkarlana profintatu beharrean da erabileran aurrerapausoak emateko. Testuinguru horretan, Martínez de Lunak (2018) zehazten du euskararen errealitatea Europako beste hizkuntza gutxituen antzekoa dela, eta eleaniztasunaren paradigma baliatu behar duela Euskal Herriak euskaltasun berri bat sortu eta helduleku berriak eraiki ahal izateko hizkuntza gutxituaren etorkizuna bermatzeko; izan ere, teoriarik, Europako testuinguruan eleaniztasuna onartzen bada ere, praktikan, nabariak dira elebakartasunaren zantzuak.

Eleaniztasuna nazioarteko ikuspegitik xehatu dugu, eta ondoren etxera egin dugu euskarari lotutako jarrerak, hizkuntza-mailak eta erabilerak aztertzeko. Oinarri teorikoaren azken lerroak profitatuko ditugu usteak zer diren azaltzeko eta horien zeresana balioan jartzeko. Adieraren errora joz gero, kontzeptuari ez zaio definizio bateraturik eman konstruktus desordenatu gisa ulertzen delako, batetik, berezkoa duen konplexutasunagatik eta, bestetik, bere baitan duen ikuspuntu ezberdin eta askotarikoengatik (Pajares 1992). Oro har, usteak irakaslearen ezagutzaren osagai dira, irakaskuntzaren alde ikusezinari dagozkionak (Borg 2003), pentsatzen, sinesten eta irakaskuntzari loturiko testuinguru-faktoreekin harremanetan (Borg 2006), irakaslearen jarduna ardaztu, egituratu eta ekintzak zuzentzen dituztenak (Borg 2011). Hizkuntzei atxikitako usteak, irakaslearen jardunean islatzeaz gain, hizkuntza-irakaskuntzarako giltzarri dira informazioa sailkatu, iragazi eta egokitzeke (Li 2012). Usteek isla dute hizkuntzetan eta jardunetan, eta, beraz, garrantzi handikoak dira irakasleek curriculumeko hizkuntzekin dituzten usteak arakatzeko (euskararen kasuan, bereziki); izan ere, irakasleek hizkuntza gutxituarekin dituzten usteak ikertzeak termometroaren funtzioa izango luke, horri lotutako ezkutuko pentsamendua argitan jartzeko euskararen ezagutzan, transmisioan eta erabileran hain funtsezko diren eragileen artean: Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleak, alegia.

3. Metodologia

Hegoaldeko Lehen Hezkuntzako irakasleen usteak arakutzen erabilitako metodologia kuantitatiboa da, online-galdetegi bidezkoa, eta, ikerketaren izaera deskribatzailea da. Atal honetan, emaitzak lortze bidean emandako pauso guztiak zehaztuko dira, hala nola, ikerketa-laginarene ezaugarriak, instrumentua, datuen jasotzea eta analisiak.

3.1. Ikerketa-lagina

Esku arteko ikerketa honetako partaideak Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoa-ko eta Nafarroako lurraldeetako Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleak izan dira. Datuok 2017/2018 ikasturte akademikoan jaso dira, eta, guztira, 418 irakaslek osatzen dute lagina. Zehazki, esku arteko lagin hau handia eta esanguratsua izanik ere, ez du hezkuntza-unibertso osoa ordezkatzeko. Horietatik guztietatik, 331 (% 79,2) emakumezkoak dira, 83 (% 19,9) gizonetzkoak eta 4 (% 1) ez-binario. Hain zuzen, 90 (% 21,5) ari dira Haur Hezkuntzan irakasten, 238 (% 56,9) Lehen Hezkuntzan eta beste 90ek (% 21,5ek) bi lanak uztartzen dituzte.

Irakasleen batezbesteko adina 43,3koa da, izanik 23 urtekoa irakaslerik gazteena eta 64koa zaharrena. Irakas-erperientziari beha, laginarene batezbesteko denbora 18,6 urtekoa da, izanik 4 hilabetekoa laginarene esperientzia minimoa klaseak ematen eta 40 urtekoa maximoa. Lehenengo hizkuntzari dagokionez, 174 (% 41,6) irakaslek euskara dute ama-hizkuntza, 190ek (% 45,5ek) gaztelania, 52k (% 12,4k) euskara eta gaztelania eta 2k (% 0,5ek) beste hizkuntza bat.

Jairolekuari erreparatuta, 167 (% 40) Gipuzkoakoak dira 144 (34,4 %) Bizkaikoak, 24 (% 5,7) Arabakoak, 60 (14,4 %) Nafarroakoak, 21 (% 5) Espainiakoak eta 2 (% 0,2) beste lurraldetakoak. Lurraldeak lurralde, 133 (% 31,8) Gipuzkoan ari dira irakasten, 138 (% 33) Bizkaian, 56 (% 13,4) Araban eta 91 (% 21,8) Nafarroan. Klaseak emateko hizkuntzari begira, 209k (% 50k) euskara darabilte, 16k (% 3,8k) gaztelania, 41ek (% 9,8k) ingelesa, 107k (% 25,6k) euskara eta gaztelania, 28k (% 6,7) euskara eta

ingelese, 3k (% 0,7k) gaztelania eta ingelese eta 14k (% 3,3k) euskara, gaztelania eta ingelese.

Irakasleek jasotako hizkuntza-ereduari begira, 200ek (% 47,8k) D eredia jaso dute, 37k (% 8,9k) B eredia, 97k (% 23,2k) A eredia, 77k (% 18,4k) G eredia eta 7k (% 1,7k) beste eredu batzuk. Gogoan hartu beharrekoa da D ereduak izan dituen mugak, eredia 1982. urtean sartu eta astiro hedatzen joan baita euskararen murgiltzeko aukera. Aldiz, egun irakasleek irakasten duten hizkuntza-ereduari erreparatuta, 353 (% 84,4) D eredian daude, 26 (% 6,2) B eredian, 20 (% 4,8) A eredian, 11 (% 2,6) G eredian eta 8 (% 1,9) beste ereduetan ari dira. Eta eskolatzeko-ereduari dagokionez, 287 (% 68,7) irakasle ari dira eskola publikoan, 67 (% 16) itunpeko eskolatan eta 64 (% 15,3) Ikastolen Elkarteetan.

3.2. Instrumentua

Online-galdetegi bitartez jaso dira irakasleen usteak, eta instrumentuaren oinarri dira DREAM (*Donostia Research on Education And Multilingualism*) ikertaldeak aurretiaz erabilitako galdetegiak, eta haren egitura itxia da. Ikerlanaren izaera tarteko, doktore-tesi ikerketa bati dagokion galdetegi luzeago baten bost aspektu zehatz aztertu dira: bat, norberak bere buruari aitortutako euskara-, gaztelania-, ingeles- eta frantses-mailen usteak; bi, lau hizkuntza horiek ikasten bakoitzari atxikitzen dion zailtasun-maila; hiru, hizkuntza bakoitzari norbanakoak emaniko garrantzia; lau, galdetegiaren hizkuntza-hautaketa; bost, hizkuntza hori hautatu izanaren arrazoia.

Lehenengo hiru aspektuetan, Likert eskala baliatu da, 0tik 4ra, oso txikitik oso handira. Laugarrenean, galdetegiaren hiru hizkuntzak zerrendatu dira bat aukeratzeko. Eta bosgarrenean, zazpi aukera eman dira hizkuntza hautatu izanaren arrazoi gisa. Galdetegi osoa DREAM ikertaldeko bost ikertaldekiderek eta zortzi Lehen Hezkuntzako irakasleekin pilotatu da, izan zitzakeen ulermen-arazoak, hobetzeko aspektuak eta bestelako akatsak zuzentze aldera. Galdetegia hiru hizkuntzetan (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez) eskaini zaie, eta partaideek askatasunez aukeratu dute. Galdetegi

osoak hiru atal nagusi ditu: lehenengoa, eleaniztasunaren ingurukoa; bigarrena, hizkuntza-irakaskuntza eta -ikaskuntza prozesuei buruzkoa, eta hirugarrena, metodologiei buruzkoa. Orotara, partaideek 30 minutu baino gutxiago behar izan zuten galdetegia bete ahal izateko.

3.3. Datuak jaso eta analisiak egitea

Galdetegia eratzeko eta irakasleen artean hedatzerako garaian, *Encuestafácil* programa erabili da, UPV/EHUren lizentziarekin (<https://www.encuestafacil.com>). Bi erkidegoetako hezkuntza-sailak arakatu, eta zerrenda osatu da ikastetxe guztiekin; ondoren, horietara bidali dira galdetegiako gonbidapenak, bertan erantsirik galdetegia betetzeko esteka eta beharrezko azalpen eta argibide guztiak. Era berean, mezuari baimen-agiriak eta egiaztagiriak atxiki zaizkio. Hain zuzen ere, zuzendariei luzatu zaie gonbidapena, eta, ondoren, haien esku gelditu da parte hartzeko erabakia. Gainera, onartzekotan, zuzendariak ikerlariak luzatutako gonbidapena birbidali diete ikastetxeko irakasleei, bermaturik erabateko anonimotasuna eta parte-hartze librea.

Galdetegia erabilgarri egon da 2018/04/11tik 2018/06/06 bitartean. Ikerketa-proiektuak Euskal Herriko Unibertsitateko Etika Batzordearen onepena jaso du (identifikazio-kodea: M10_2017_143) eta haiek iritzitako jarraibide eta moduetan jaso eta analizatu dira datuak, erabateko anonimotasuna, konfidentziasuna eta parte-hartze librea bermatu ahal izateko. Datu kuantitatiboen prozesamendua SPSS (26. bertsioa) programa estatistikoarekin egin da. Egindako kalkuluak estatistiko-deskribatzaileak dira, helburu izanik datuen ezaugarri nagusi eta azpimarragarrien behaketa, sailkatzea eta laburpena.


4. Emaitzak

Honako atal honetan erakutsiko diren emaitzek jomuga dute arestian aitatutako helburuak jorratu eta horiei erantzutea.

4.1. Norberak duen hizkuntza-mailaren ustea

Ondorengo item-multzoak irakasleak bere buruari aitortzen dion hizkuntza-gaitasunaren ustea neurtzen du. Horretarako, lau hizkuntza zerrendatu dira: euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesa; eta, ondoren, bakoitzean norberak aitortutako hizkuntza-maila bost aukeren artean: oso txikia, txikia, ertaina, handia eta oso handia. Emaitzak erakusgai daude 1. Irudian.

1. Irudia: Norberak duen hizkuntza-mailaren ustea




Datuek argi azaltzen dute, lauron artean, bi hizkuntza direla hizkuntza-maila handienak dituztenak: gaztelania eta euskara, hurrenez hurren. Zehazki, gaztelaniaren kasuan, % 93,8k (OH: 48,6; H: 45,2) maila handia aitortu du, eta, euskaran, % 87,8k (OH: 40,2; H: 47,6). Aldiz, txanponaren ifrentzuan, apalak dira ingelesean eta frantsesean hizkuntza-mailaren emaitzak, izan ere, % 47,6k (OT: 20,1; T: 27,5) eta % 91,1ek (OT: 69,1; T: 22) maila baxuak adierazi dituzte, hurrenez hurren.

4.2. Hizkuntzari emandako garrantzi-mailaren ustea

Honakoan, aurreko item-multzoan egin dugun antzera, norberak hizkuntzari ematen dion garrantziaren ustea neurtu da, lau hizkuntzetan eta ba-

koitzean bost mailaren edo graduren artean aukera emanik. Hizkuntza bakoitzarekiko datuen berri ematen du 2. Irudiak.

2. Irudia: Hizkuntzari emandako garrantzi-mailaren ustea




Datuek azpimarratzen dute irakasleek honako hurrenkera honetan ematen dietela garrantzia hizkuntzei: euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesa. Irakasleen % 93k (OH: 72,7; H: 20,3) garrantzi-maila handia ematen dio euskarari, eta % 3,1ek (OT: 1,4; T: 1,7) garrantzi-maila txikia. Gaztelaniaren eta ingelesaren kasuan, datuak nahiko berdintsuak dira: % 73,7k (OH: 38,5; H: 35,2) eta % 71,5ek (OH: 30,1; H: 41,4) garrantzia maila handiak ematen dizkiete, hurrenez hurren. Frantsesaren kasua bestelakoa da, izan ere, hizkuntza-mailarekin gertatu bezala, arras baxuagoa da beste hirurekin konparatuta. Hain zuzen ere, soilik % 23,5ek (OH: 7,7; H: 15,8) ematen diote garrantzia hizkuntzari, eta % 37,1ek (OT: 13,9; T: 23,2) garrantzi-maila txikia.

4.3. Hizkuntza ikasteko zailtasunaren ustea

Oraingoan, hizkuntza bakoitza ikasteko zailtasuna neurtuko da, aurrekoetan bezala, maila oso txikiaren eta oso handiaren artean, bost aukera emanik gutzira. Ondorengo 3. Irudiak uste horiek biltzen ditu.

3. Irudia: Hizkuntza ikasteko zailtasunaren ustea




Datuek islatzen dute, oro har, gaztelania (% 57,2), ingelesa (% 58,9), frantsesa (% 56,7) eta euskara (% 41,1) ikasterako garaian irakasleek duten neutraltasuna. Ehunekoei erreparatuz gero, gaztelania da zailtasun-maila txikiena duen hizkuntza, irakasleen % 30,6k maila txikiak (T: 19,4) eta oso txikiak (OT: 11,2) eman dizkiete-eta. Aldiz, irakasleen % 35,4k (OH: 4,3; H: 31,1) eta % 37,1ek (OH: 7,2; H: 29,9) zailtasun-maila handiak eman dizkiete ingeles eta frantses hizkuntza-ikaskuntzei, hurrenez hurren. Eta lauren artean, euskara da zailtasun-maila handiena jaso duen hizkuntza, % 51,5ek (OH: 14,4; H: 37,1) euskara ikastea zaila den ustea baitu.

4.4. Galdetegiko hizkuntza-hautaketa eta arrazoiak


Lehen eta Haur Hezkuntza esparruetan eginiko ikerketa honek, galdetegiaren hizkuntza hautatzeko aukera eman dio parte-hartzaileari: euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Irakasleen hizkuntza-hautuak erakusgai daude 4. Irudian. Aukeren artean, galdetegiaren hiru hizkuntzen artean, euskara izan da erabiliena, irakasleen % 67k (N= 279) erabaki baitu galdetegia euskaraz betetzea; aldiz, % 33k (N= 137) gaztelania aukeratu du, eta erabat apala izan da ingelesarena (N= 2).

4. Irudia: Galdetegiko hizkuntza-hautaketa



Galdetegiko azken itema egindako hizkuntza hautuaren arrazoiarena da: “Zergatik aukeratu duzu galdetegia hizkuntza honetan betetzea?”. Galdera-ri erantzun ahal izateko, zazpi aukera eskaini zaizkio irakasleari, eta erantzunak hizkuntza bakoitzean sailkatu dira, ehunekotan (Ikus 5. Irudia).

5. Irudia: Galdetegiko hizkuntza-hautaketaren arrazoa



Hizkuntzaz hizkuntza, datuek erakusten dute zer arrazoi dauden bat edo beste hautatzearen atzean. Zazpi aukeren artean galdetegia euskaraz betetzea erabaki dutenen artean, % 43,4k adierazi dute hizkuntza-atxikimenduarena; aldiz, gaztelaniaz egin dutenen artean, soilik % 5,1ek egin du atxikimenduaren aukera. Gaztelaniaz erantzutea hautatu dutenen artean,

erdiak (% 50,4) erraztasunagatik hautatu duela dio; eta euskaraz egin dutenen artean, aldiz, laurdenak. Galdetegia gaztelaniaz bete dutenen artean, % 21,9k oharkabean aukeratu du hizkuntza hori, eta euskaraz bete dutenen artean, ordea, irakasleen % 12,9k. Azpimarragarria ere bada ulermen arazo posibleak ekidite aldera irakasleek egin duten hautua: gaztelania hautatu du irakasleen % 13,1ek, eta, euskara, % 1,1ek soilik. Kontrara, hezkuntza alorreko hizkuntza delako aukeran irakasleen % 13,6k hautatu du euskara eta % 1,5ek gaztelania.

5. Eztabaida eta ondorioak

Honako atal honetan, esku arteko ikerketa honen emaitza esanguratsuenak eztabaidatu eta ondorio azpimarragarrienak nabarmenduko ditugu. Oinarri kuantitatiboko lana izaki, aztergai izan dira 418 irakasleren hizkuntza-usteak, hau da, irakasleek hizkuntzei –euskarari bereziki– atxikita dituzten ustek aztertzea honako bost aspektu hauetan: hizkuntza-mailan, garrantzi-mailan, zailtasun-mailan, galdetegirako hizkuntza-hautaketan eta horretarako arrazoietan.

Lehenik eta behin, irakasleen hizkuntza-mailei buruzko usteei erreparatuz gero, emaitzek ondorio garbiak adierazten dituzte. Irakasleek, hurrenez hurren, gaztelania- eta euskara-maila handia dutela uste dute. Hain zuzen ere, hamar irakasletik bederatzik dute uste hori. Datuetan sakondurik, erabat azpimarragarria da oso txikia dela euskara-maila apala duela uste duen irakasleria, eta gaztelaniaz ez dagoela irakaslerik bere buruari maila apala aitortu dionik. Txanponaren ifrentzuan, ingelesa eta frantsesa leudeke. Bietarik lehenengoan, irakasleriaren erdiak hizkuntza-maila txikia adierazi du, eta laurdenak ingeles-maila handia; bigarrenean, aldiz, arras dibertsifikazio gutxiago dago, ez baitago apenas irakaslerik maila altua duenik, gehiengoak maila txikia erakutsi baitu. Hegoaldeko irakasleek Euskal Herriko eleaniztasuna osatzen duten hizkuntzen inguruko mailen usteek honakoa nabarmentzen dute: Hegoaldeko irakasle guztiak elebidunak direla eta irakasleriaren masa handi bat hirueledun. Alabaina, hirueleduntasun horren ekuazioan, frantsesa ez da hirugarren hizkuntza, eta aho-bilorik gabe esan

liteke Hegoaldeko irakasleek ez dutela frantsesaren inguruko ezagutzarik, eta beraz, ezin litekeela gaur-gaurkoz frantsesa beste hiru hizkuntzak bezainbeste integratu eleaniztasunaren ekuazioan. Datuok, Hegoaldeko Lehen eta Haur Hezkuntzako irakasleenak izaki, bereziki txarrak dira kontuan harturik Euskal Herrian, Iparraldean, dagoen hizkuntzetako bat dela frantsesa eta eleaniztasuna elikatuko lukeen hizkuntza bati bizkar ematen diola Hegoaldeko hezkuntzak; edonola ere, itxaropenerako aukera ere bada, Iparraldea eta Hegoaldea lotzeko hizkuntza amankomuna euskara izatea indar baitezake. Horretarako, aukerak eta bideak posible dira; orain hezkuntza- eta gizarte-eragileei dagokie zubi-eginkizuna duen hizkuntzarekin galtzada-harria jarri eta euskararen funtzioan, ezagutzan eta erabilera sakontzea. Ildo horretan, Hegoaldean bederen, esku arteko ikerketa honen ondorioek bat egiten dute arestian Azurmendi *et al.*ek (2018) egindako azterketa soziolinguistikoaren ezaugarriekin, euskarak usteak, jarrerak eta ezagutza alde dituela azpimarratu eta eragileen arteko elkarlana profitatu beharrean dela aurrerapauso esanguratsuak eman ahal izateko.

Lau hizkuntzei emaniko garrantzi-mailari buruz, hiru ondorio nagusi ateratzen dira genitzake: lehenengoa, Hegoaldeko irakasleriaren gehiengoak hiru hizkuntza balioesten dituela: euskara, gaztelania eta ingelesa; bigarrena, euskara dela alde nabarmenarekin garrantzi-maila handiena jasotzen duen hizkuntza; eta hirugarrena, frantsesak garrantzi-maila txikiena jaso eta irakasle gehiago direla gutxiesten dutenak balioesten dutenak baino. Alde batetik, Hegoaldeko irakasleen usteen deskribapen hau baliotsu eta fidela da, hezkuntzak eta gizarteak, euskara ardatz, elebitasuna eta ingelesa hirugarren hizkuntza gisa bultzatzen eta babesten baitituzte. Bestetik, aurreko lerroetako ondorioaren bide beretik, frantsesak jasotako garrantzi-maila apalak indartzen du Hegoaldeko irakasleek frantsesa eleaniztasunaren ekuazioan ez sartzea, eta ekintza horren atzeko arrazoiak gizarteak hizkuntzarekiko duen atxikimendu mugatuaren, arrotzasunaren, motibazioaren, funtzioaren eta beharren isla izan litezke. Azken ondorio horretan sakondurik, Martínez de Lunak (2018) azpimarratu bezala, Euskal Herriak paradigma eleaniztunera egokitu behar du euskara, eta, hortaz, aukera paregabea izan daiteke Hegoaldearen eta Iparraldearen kohesiorako erreminta gisa baliatu ahal izateko.

Hirugarrenik, hizkuntzak ikasteko zailtasun-usteak izango ditugu hizpide. Hasteko, kopurua gorabehera, Hegoaldeko irakasleriaren erdiak zailtasun-maila ertaina aitortzen die lau hizkuntzei. Horien artean, irakasleen usteek adierazten dute gaztelania dela hizkuntzarik errazena ikasten; halaber, ingelesa eta frantsesa hizkuntza zailagoak dira, baina pareko zailtasun-mailekin. Eta lau hizkuntzetatik, euskara da ikasten zailena, irakasleriaren erdiarentzat izanik hizkuntza ikasten nekeza. Azken ondorioak bat egiten du Amonarrizek (2019) azaldutakoarekin, izan ere, gizartearen usteetan sakon erroturik dago euskarak berezko ezaugarri duela ikasten zaila den hizkuntza izatea. Geroari begira, interes handikoa litzateke orain Haur eta Lehen Hezkuntzako graduetan diren ikasleek (etorkizuneko irakasleek) dituzten usteak ikertzea eta bien arteko konparaketa egitea, euskarari buruzko zailtasun-usteen joera ezagutze aldera.

Azken ondorioa ateratzeko laugarren eta bosgarren ikerketa-emaitzak bateratu ditugu, galdetegian irakasleek erabilitako hizkuntza eta berau hautatu izanaren arrazoa. Lehenik, gogoan izanik honako ikerketa hau tesi-ikerketa zabalago eta luzeago baten zati dela, azpimarratu behar da irakasleriaren gehiengoak euskara hautatu duela galdetegi luzea bete ahal izateko; modu bertsuan, azpimarragarria bezain kontuan hartzekoa ere bada, euskara teoriar indartsu den alorrean, hezkuntzan, gaztelania galdetegi-hizkuntza gisa aukeratu dutenen kopurua; hots, euskarak haizea alde duen esparruan *lingua franca*k duen pisua. Hala, Hegoaldeko irakasleen hizkuntza-hautaketari behatuz, ondoriozta daiteke uste nagusi bana errotzen dela euskararen eta gaztelaniaren atzean. Alde batetik, hizkuntzarekiko atxikimendua da euskaraz hautatzen dutenen arrazoi nagusia; halaber, bigarren mailako arrazoi erraztasunarena da. Bestetik, erraztasuna da arrazoi nagusi gaztelaniaz egitea erabaki dutenen artean; gainera, bigarren mailako arrazoi gisa, oharkabean hizkuntza hori hautatu izana dago. Ondorioztapen orokorrik egitea ezinezkoa baldin bada ere, esku arteko ikerketa honen ondorioek iradokitzen dute euskararen atzean babesteko usteak eta jarrerak daudela, hizkuntza gutxituarenganako atxikimenduan behagarri direnak; hein berean, ulergarria ere bada Hegoaldeko irakasleek euskararekin erraztasun handiagoa izatea hezkuntzarekin lotutako gaiet buruz galdetu eta erantzuterakoan. Era berean, *lingua franca* eta Hegoal-

dean hedatuena izaki, logikoa da erraztasun handiagoa izatea gaztelaniarekin; edonola ere, azken datu horretan sakonduz gero, esanguratsua bezain iradokitzailea da gaztelania hautatu dutenen irakasleen artean hizkuntzarekiko duten atxikimendu-eza, iradokirik hizkuntza horren atzean funtzio utilitarista egon litekeela.

6. Erreferentzia bibliografikoak

AMONARRIZ, K. (2019). *Euskararen bidegurutzetik*. Elkar.

AZURMENDI, N., ANDUAGA, U., URANGA, B., & GOIKOETXEA, G. (2018). «Arduradun politikoez, eragile sozialez eta unibertsitateko adituek esandakoaren kronika», Udako Ikastaroko mahai-inguruak. *BAT Soziolinguista Aldizkaria*, 2018(106), 147–175.

BASQUE AUTONOMOUS COMMUNITY. (1982). Law for the Normalization of Basque. Ley 10/1982, BOPV 16- 12-1982

BORG, S. (2003). «Teacher cognition in language teaching: A review of research on what language teachers think, know, believe, and do». *Language Teaching*, 36(02), 81–109. <https://doi.org/10.1017/S0261444803001903>

——— (2006). *Teacher Cognition and Teacher Education: Research and Practice*. Continuum.

BORG, S. (2011). «The impact of in-service teacher education on language teachers' beliefs». *System*, 39(3), 370–380. <https://doi.org/10.1016/j.system.2011.07.009>

CENOZ, J., & GORTER, D. (2014). *Focus on Multilingualism as an Approach in Educational Contexts* (239–254. or.). https://doi.org/10.1007/978-94-007-7856-6_13

——— (2019a). «Minority Languages, National State Languages, and English in Europe: Multilingual Education in the Basque Country and Friesland». *Journal of Multilingual Education Research*, 9(1), 61–77.

——— (2019b). «Multilingualism, Translanguaging, and Minority Languages in SLA». *Modern Language Journal*, 103, 130–135. <https://doi.org/10.1111/modl.12529>

CENOZ, J., & SANTOS, A. (2020). «Implementing pedagogical translanguaging in trilingual schools». *System*, 92, 102273. <https://doi.org/10.1016/j.system.2020.102273>

CONTEH, J., & MEIER, G. (2014). *The Multilingual Turn in Languages Education*. Multilingual Matters. <https://doi.org/10.21832/9781783092246>

ERDOCIA, I. (2018). «Medium of instruction ideologies: accommodation of multilingualism in the bilingual regime of Navarre». *Current Issues in Language Planning*, 20(3), 1–25. <https://doi.org/10.1080/14664208.2018.1503457>

EUSKO JAURLARITZA. (2016). Seigarren inkesta soziolinguistikoa. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak. Retrieved from https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9954/VI_INK_SOZLG-EH_eus.pdf?1499236557

EUSTAT. (2022). Unibertsitatekan kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleak, Euskal AEn, lurralde eta irakaskuntza-mailaren arabera, zentroaren titulartasunari eta hizkuntza ereduari jarraiki. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/matricula_graficos_evolutivos/eu_def/adjuntos/EAE_ere-dua_OBLIG.pdf

GARCIA, L., ARRATIBEL, N., & IRIZAR, A. (2017). «Euskararen ezagutza eta erabilera binomioa: Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateko 1. mailako ikasleak ulertzeko gakoak». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 4(105), 163–199.

GARCÍA, O., & OTHEGUY, R. (2020). «Plurilingualism and translanguaging: commonalities and divergences». *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, 23(1), 17–35. <https://doi.org/10.1080/13670050.2019.1598932>

GORTER, D., & AROCENA, E. (2020). «Teachers' beliefs about multilingualism in a course on translanguaging». *System*, 92, 102272. <https://doi.org/10.1016/j.system.2020.102272>

LI, X. (2012). «The role of Teachers' Beliefs in the Language Teaching-Learning Process». *Theory and Practice in Language Studies*, 2(7), 1397–1402.

MARTÍNEZ DE LUNA, I. (2018). «Euskararen biziberritzea, eleaniztasunaren garai-ko erroka». *BAT Soziolinguista Aldizkaria*, 106(1), 47–64. http://www.soziolinguistika.org/files/inaki_mtnez_de_luna_106.pdf

MAY, S. (2013). *The Multilingual Turn: Implications for SLA, TESOL, and Bilingual Education* (S. May (ed.)). Routledge. <https://doi.org/10.4324/9780203113493>

NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA. (1986). 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, euskarari buruzkoa. <http://www.navarra.es/NR/exeres/80CF3F15-A9C6-40B2-867B-F7C50905CCD6.htm>

——— (1988). Decreto Foral 159/1988, de 19 de Mayo, por el que se regula la incorporación y uso del vascuence en la enseñanza no universitaria de Navarra. <http://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=28807>

——— (2015). 24/2015 Foru Dekretua, apirilaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumaz ezartzen duena. <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/0/>

Mintzatzeko aukeratutako hizkuntzak ere banantzen ditu. “Yo ya sabusté, yo por la Libertá” (87) dioen Floren Andrakak, “Protesto” (183, 222) bigarrenez baliatu ostean, “Hay que haser un curso de apelasi3n” (222) emendatzean, bilerako kide batek, Aranduik, “Mutil, euskeraz itz egik” (222) erantzuten dio. Baita kontalariak iruzkin bat txertatu ere:

Hay que entablar recurso de apelasi3n-en ordezekoak alziran bere itz len aitatuak. Ezin esan Gorabidea artu bear dogu? Ori esan baleu, batzarreko guztiak ulertuko eutsen bere gogamena, baia zoritxarrean arroa izan ta erderaz egin bear. Amaika Floren Andraka bizi dira gure artean or-emenka (222-223).

Don Anbrus ere ez da Floren Andrakaren iritzikoa:

Floren Andrakak *apelasi3n* gora ta *apelasi3n* b3ra ziarduan, don Anbrus bera gogaitarazo-arte. Isasti jauntxoak, (...) euskalzaletxoak zirudian. Ona zegaitik. Zalditzat *caballoa* ta txarteltzat *billetea* esanaren, gure egunotan iñor ezta lotsatzen, ez esale ez entzulerik; baia *costudera*, nai *semos*, nai *eslegir*, nai *alkordar* ta *sorpresa* nai *m3ndigo* entzunda, don Anbrusi irribarre egiten eutsen ta gurago izaten eban euskeraz yardun (223).

Pedro Viñasek seminarioan luzaroan egondako Busturiri beste ezizen bat ezarri zion, “Elizkoia zalako *el sacristán de Cartago* izentau oi eban” (94) eta, don Anbrusen etxean sartzan denean, “Busturik sotan3a ezaban erantzi, yakepean darabil” (109) diotsa eta jabeak “*¿La inoransia m3s que la siensia te gusta o qu3?*” (109) ihardetsi ondoren, gudalburuak argitzen dio esandakoaren zergatia: “Busturi bekosolotarrari salduta daukagu. Erromarrakaz isileko artu-emonak darabiltz” (109).

Liberalek mitin ugari egiten dituzte, bakoitzean bi mintzairak erabiliz: “Floren Andrakak domeka arrastian Meñakan diskurtsu bi daukaz, erderaz ta euskeraz (100)”, “Uritarrak –zinoan-, gaur arratsean (...) *diskurtsu* bi (...) Ortiz de Treviño maisuak *Caf3 de la Uni3n*en erderaz, Arandui karnazeruak (...) euskeraz. (...). Diskurtsu onen geia: *La lucha electoral*” (154), “Ienengo, Larauo, euskeraz; gero, erderaz, Floren” (220). Karlistek, oster, mitin bat baino ez, Mungian egiten dutena, eta euskaraz soilik. Mitin horrek zenbait berezitasun ditu, kontakizunean osorik jasotakoa ez ezik, alde bateko eta bes-

teko gudalburuak aurrez aurre jartzen dituen da, karlistenenak euskaraz barririk eta liberalenenak bi eleetan, mitinlariak gaztelaniaz eta itzultzaileak hark adierazitakoa euskaratuz. Donato Arraitz da lehenbizi hitza hartzen duena eta ekitean entzuleen artean zeuden liberalek astintzen dute, Arangoitiren emazte andra Isidorak “*feo*” (182), “*Feote*” (183), “*Macaco*” (184), “*Calla, cara de vino*” (185) oihukatuz; Arangoitik “*Ahí duele*” (183), “*Fuera ese lenguaje chabacano*” (186) eta Floren Andrakak “*Protesto*” (183). Pedro Viñasek Donato Arraitz txandakatzen duenean, haren lehen berbak entzuleak isilarazteko dira: “*Basta señores, basta*” (189). Horren mitinean ere liberalen garrasiak karlistenen gaineratik daude: horiek “*Viva don Felipe Kortazar*” (190) baizik ez, eta haiek Floren Andrakaren “*Bravísimo*” (190), horren arreba zaharrenak alboko etxeakoarenari ohartarazitakoa, “*Marselina, Marse –esan eban–, griteis que hable Floren Andraka; lo demás perder vamos a haser, seguro, seguro, perder*” (191), eta Martzelinak, “*Que hable Floren Andraka*” (191). Arangoitik “*No hace falta ningún intérprete*”, “*¡Bravo, amigo!*” (192), nahiz eta bere ustez gaizki bukatu zuen: “*Tipejo, todo lo has echado a perder*” (194). Andra Isidorak ere jarraitzen du “*Imbéciles*” (190), “*Aplaudid lo bueno, destripaterrones*” (193), “*Bien devuelto*” (193), “*Mi enhorabuena. Esto es hablar*” (194). Hauei, izenik gabeko liberalak elkartzen zaizkie “*Viva don Pedro*” (193) deiadarraz eta “*Muy bien*” (194) balioztatuz.

Hauteskundeetako kanpainarako liberalen gudalburu izendatzen dute Puerto Ricokoa den Pedro Viñas y Andres, eta euskaraz tutik ez dakien honek egoera soziolinguistikoaz galdetzen du. Arangoitik horren berri ematen dio:

Emen kalean bizi diranok, osoro nai erdizka ta zelanbait, erdereak bururatzen dabe; baia kaletik urten ezkerok, sei ezaldagoz basauri bakoitzean, sei gizaki, erderazko itzaldi bat ulertuko dabenik (53).

Hala izanik, ezinbestez, itzultzaile baten premia zeukan eta kontratatua izan zenak mitin horretan lana zuen, Donato Arraitzek euskaraz ziharduela, ulertezina saihesteko (“*Qué dice?*”, “*Adierazleak: ‘Que viene usted de casa de la madre’*” (182)), zein bere gudalburuaren mitina euskaratzeko. Puerto Ricokoa izanagatik, ez dario gaztelaniazko dialektorik, ezta euskararekin hutsik egin ere. Orokorrean euskara baliatzen du, noizbait gaztela-

niara joz, bai hizketan diharduenean, bai idazten duenean. *Eco de Vizcaya*-ko berriemaileak Mungiako mitinaren ebaluazioa euskaraz mamitzen du, eta izenburua *El Eco de Vizcaya con la carta de Munguia* (204) izan arren, gaztelaniazko bi esaldi bakarrik txertatzen ditu, biak karlisten gudaiburu Arraitz gaitzesteko:

... ezin kendu izaten dot neure buruti Quevedok gizon surrandi batez esan ebana: ‘Erase un hombre a una nariz pegado’. Arraitz ezagutu baleu ‘Erase un par de ojos de besugo pegados a un hablador’ esango eben madriltar idazle irrilari andiak (205).

Bi bider jasotzen dira *Eco de Vizcaya*ra bidalitako albisteen zatiren bat, biak batzen ditu karlistak erasotzeak eta banantzen ditu erabilitako hizkuntzak:

Rústicos oradores... Inspiraciones del morapio... Contrabandistas de la elocuencia... Remachadores de la ignorancia popular... El Sátiro y el Juglar” (94).

Gudaiburu den aldetik, mitinlariak mitina zertzeko moduaren erantzule da eta gain-gainean egoten da. Don Anbrusek Gatikako mitinean ahantzi duena gogorarazten dio, hurrengoan, Laukarizekoan, sartzeko:

1^o *No soy orador.*

2^o *Hijo de Jatabe, casi casi de Gatika... y Laukariz.*

3^o *Presidente de la Concordia Cívica El Rásimo.*

4^o *Frutas del árbol. Ferrocarril de vía estrecha. Primera estación: Gatika y Laukariz respectivamente* (79).

Baita bereaz arduratu ere, itzultzaileari nola bete behar duen eginkizuna azalduz, aditu bezala bost gai jorratuz, hitz-ebakerarekin hasiz (164-166). Euskararen arrastorik ez duenak ia euskara hutsean jakinarazten dio, eta bere ikasgai luze horretan gaztelaniazko esaera bat eta hitz bakarra besterik ez ditu barneratzen: aurrenekoa, erkaketa gisa ekarritakoa; bigarrena, jarritako hitzaren ordezkoa.

Mungiako mitinean, don Anbrusen tituluen berri ematen duenez, “*Presidente del Ferrocarril de Munguia, Presidente de la Fábrica de Vidrios Berino-leaga, Presidente de la Concordia Cívica de Bilbao, Presidente honorario de la*

Sociedad de oradores de esta villa” (193-194), justifikatuta daude kanpainan usatu dituzten erdarakadak, orain arte aipatu ez direnak gehituz: “*De vía estrecha*” (69), “*tren de de de...vía estrecha*” (70), “*orador patriarcal*” (89, 91, 98, 102, 182, 184, 217).

Bi gudalburuak bakarrik batzen ditu sendagileak izateak, “Arraitzek Madriden lez Viñasek Valladoliden ikasi dau” (118), eta gaztelaniaz itsatsitako esaera batek: Arraitzek “*Creo en Dios Padre*” (90), eta Viñasek hitz-ebakeraz aukeratutako alderaketa, “*Dios te salve ta Creo en Dios Padre*” (164).

Karlisten ahotsetik gaztelania oso gutxi ateratzeaz bestalde, ez dute zeri-kusirik, ez alderdiarekin, ezta kanpainarekin ere. Donato Arraitzek Mungiako mitinean erantsitakoak besteenak dira, liberalek kanpainan zehar igorri dituzten kontsignak baizik ez: “*Presidente de honor*” (182), “*Orador patriarcal*” (182, 184), “*El Rásimo*” (182, 184), “*Candidatura liberal*” (187), “*Candidatura independiente*” (187), eta honen harira burura datorkion “*Candidatura apostólica*” (187), “*honorable*” (190). Osterantzekoek ez dute harremanik politikarekin, “*Sacristan de Gatika, Heroe de Arcachon*” (35), “*cólico miserere*” (172), “*monos sabios*” (262), “*Que aproveche*” (290), “Anton Imaz ta Ezkurdi, *natural de Mendata*” (296), eta horiei emendatzen die “*Ladrón, malvado*” (289), Jatabeko botoen zenbaketa iragartzen dutenean.

Gaztelaniari dagokionez, neurriak eta zeresanak bereizten ditu liberalak eta karlistak, baina elkartzen ditu idazketa erak, bi aldekoetan daudelako arauan ala ahoskeran oinarritutakoak. Banaketak irizpide bakarra jarraitzen du, ikasketaduna izatea ala ez.

Karlisten ostean Anton Imazi egozten zaio euskaldunen gaztelaniazko dialektoa: “Bilboko eliza baten *Bajo de Capilla* ta *organista ajunto* egin nenduen” (29), “*Sertamen de Orfeones*” (29), “*beintisnco*” (156), “*asoluto*” (156), eta behin edo behin arauaren agindupean, “*Sacristan, cantor, organista*” (29), “*Orfeón Bilbaino*” (29), “*Yo soy elector de Gatika*” (70), nahiz eta azken honetan badagoen zalantzaren bat, besterik erantzuten diolako Busturik, Viñasek galdetzen dionean zelango izena den Adona:

Erderazko Abdona. Eztautsazu goizeon Anton Imazi *eleor de Gatika* esaten entzun? (76).

Antzera jokatzeko Floren Andraka liberalarekin. Floren Andrakak daraman zaldiari “*Hala, Vizconde; hala, Cabrera, que vamos a Jatabe y tenemos prisa; hala, hala*” (65) adierazten dio; “*Bravísimo*” (190) oihukatzen du Viñasen mitinean; “*Bravo*” (289) Jatabeko boto-zenbaketak aldarrikatzean edo paperean irakurtzen duenean “*yo no soy orador*” (86). Lehendakari duten don Anbrusekin, hegiagoretan izan ezik, “*Caracolada!*” (21), “*Cara... cas!*” (44), beti ebakerari eusten dio.

Liberalen buruaren, Floren Andrakaren, eta hori babesten duten pertsonaien gaztelania salbu, gainerakoena arauan finkatzen da, nola hautagai duten Tomas Torrealdearena (“*¿Quién es usted?*” (70), “*Viva el ilustre ayuntamiento de Jatabe*” (71)), hala Laraudorena (“*El Señor Arangoiti será inspector*” (214)).

Hortaz, gaztelaniaren idazketa ez da ezartzen ideologian. Ikasketak ez dituztenei xedatzen zaie euskaldunen dialektoa, eta horren erakargarri zuen Azkuek hizkuntzen gaia, ez duela baztertzen beste dialekto bat gehitzea ere, andaluziarrena, Bermeoko ahaldungaiaren bidez: “*Bermeoko Vista de Aduana* andaluzak esaten dauskuna, *pata quié desir igual, lo mezmo*” (286).

Berez, gaztelaniarekiko harremana ez da mugatzen hauteskundeetara aurkezten direnetara: iraganean, Anton Imazek Bordelen orfeoien lehiaketan parte hartu zuenean, “*Maisuak batean Muchachos, sangre, bestean Arlotes, aquí pegar*” (29) esaten zien; orainean, zaldizainak bezeroari ihardesten dio: “*¿Al Rásimo? Ya sé ande está*” (87), eta Bilboko auzitegian egiten den epaian mahaiburuak “*Tiene la palabra su defensor*” (305) dio.

Gaztelaniazko maileguak liberalen zein karlisten ahotsetik ateratzen dira. Liberalen aldekoek, “*cara ta cruz*” (25), “*konbenzidu*” (59), “*inusente*” (66), “*dentista bat*” (78), “*Estado Mayorra*” (85), “*politika lokala*” (96, 154, 218), “*sin falta*” (97, 281), “*seguru*” (134), “*partiduak*” (135), “*puntu*” (136, 137), “*Demokrata ta inkondisional*” (136), “*esentzia ta esperentzia*” (136), “*controversiarik*” (220), “*iñorantea*” (220), eta behin don Anbrusek nolabaiteko nahasketa egiten du: “*Iñusente, más que iñusente!*” (160). Karlisten aldekoek, Zabaleta eskribauaren “*generalá*” (90), Santi Latsibiren “*promes*” (122), gualburuaren “*kaso konplikadu batek*”, “*konsulta-billa*” (211), “*akonpañamenua*” (265), eta Aiko ezizena zuenak jarritako bertsoak liberalek igorritako

kontsignak sartzen ditu: “*konferenzia / Libertadea ta progresoa / nai politika lokala*” (218). Alabaina, hauteskundeak irabazi nahi dituzten biek mailegu bat partekatzen dute: “*diskurtsua*” (91, 96, 100, 154), “*diskurtsua*” (92, 98, 137, 141, 246), “*diskursu*” (93). Badago pertsonaia bat hizketan mailegua eta euskarazko ordezkoa lotzen dituen ere, “*Berinoleaga egin zanean kontratista Zenon izan zan, (...). Yataben udarako etse bat egiteko (...), Zenon berau izango dala eginedun*” (246), eta “*eginedun*” horren esanahia zehazten da: “*kontratista*” (246).

Kontalariak berak ez dio uko egiten ekidin zitzakeen gaztelaniazko maileguak kontakizunean bertan ipintzeari, “*sopea*” (19), “*posporo*” (138), “*notarioa*” (175), “*termometroa*” (176), “*kartzelara*” (184), “*kartzelaratu*” (294), “*kartzelan*” (295), “*faltsifikau*” (295) eta “*zukua*”, “*arrast*”, “*barataria*”, “*egurazia*”, “*baitegi*”, “*aizundu*” oin-oharrera errotan ditu, nahiz eta kontrako norabidekoa izan ohikoena. Kontakizunean maileguaren alde egiten duenean, gutxitan eransten du euskarazko hitza eta aldrebes jarduten duenean, bai. Esaterako, “*zadorlaria*” (170, 259, 263) hobesten duenean, maileguaren berri ematen du; ez, horrela, “*sekretarioa*” (228, 266) lehenesten duenean, ez du emendatzen oin-oharrean euskarazko berba.

Ardi galduak zeukan helburuarengatik, istorioa kokatzen du gaztelania iritsi ez den tokian. *Latsibin*, gertalekuz aldatzean, justifikatuta zegoen hizkuntza hori nabarmen gehiago erabiltzea. Elebakarrak eta elebidunak dardela adierazten du, baina euskara ez dakitenak barneratzen dituenek, hauen mintzairari eusten bazion, ezinezko izango zuen euskaraz gauzatzea kontakizuna. Horregatik egileak eskaintzen die eleaniztasuna Pedro Viñasi zein Arangoitiren emazte andra Isidorari, gaztelaniaren lagin bat lagatzera mugatuz.

Latinoamerikako gaztelaniaren dialektoa txertatzeko egokiera agerikoa izan arren, baztertzen du, Puerto Ricok elkartzen baititu liberalen gudalburuak eta lehendakariak. Ikasketen mailak bereizten dituenek, sendagilearen gaztelania arauan oinarritzen da, eta han berrogei urtez bizi izandakoarena euskaldunen dialektoan sustraitzen da.

Istorioaren langaietako bat historia da. Historiagile batengana jotzen du iraganeko jazoerak bermatzeko, lehen gerra karlistako “urbanos”en eta bi-

garren karlistadako “Auxiliares”-en (60) gaineko aipamenak bilduz. Kontakizunaren orainaldian ere osagai hori gordetzen du; ez horregatik, besteen-gandik jasoz. Egilea bera da karlisten gudaiburuaren benetako izena jartzen duena, Espainiako ministroen burua, liberalen euskarrien izenak eta ezizenak, “Concordia Cívica”, “El Rácimo”, “La Piña”, “El Sitio”, Bilbon zeuden elkarteak, “Orfeón Bilbaino”, “*Sociedad Bilbaina*” (212, 215)... Kontakizuneari egindako akusazioekin, ikertu dituzten historialariak bat datoz.

Azkuek erabaki du karlistak alde batera uztea eta liberalak jarraitzea. Karlistenak ez bezala, jakinarazten da nork izendatu dituen gudaiburu eta hautagaia, baita kanpainan zehar obratzen duena ere. Hortaz, liberalen protagonismoaren eragilea da daukaten portaera salatzea. Lehendakaria jauntxoa da, berak bakarrik aukeratzen ditu hautagaia eta gudaiburu: bata bere iloba, eta bestea horren arrebaren senargaia. Kanpainan ezartzen da hauteskundeak irabazteko modua, errentadunak estutzea, botoak erostea eta botoen aktak faltsutzea. Liberalen makurkeria horiek gaztelaniazko berben bitartez zipriztindu izanagatik, mintzairaren eta salaketaren artean ez dago lotura esturik, preseski, leporatze horietako bat euskaraz azaltzen delako, don Anbrusek bere maizter Santi Latsibiri eskatutako botoa eta ahaldungai izandako Arangoitik, aurkako iritzia duenak, gaztelaniaz arbuiatzen duelako errenteroak zapaltzea: “*no soy mercader de hombres, no soy tratante de blancos*” (52).

4. Ondorioak

Azkueren kontakizunetan, euskaraz gain erantsitako mintzaireretan bi dira gertalekuetara edo inguru oso hurbilera iritsi direnak, latina eta gaztelania, baina banatzen ditu kokaguneak, latina hil zen, eta bizi da elizkizunetan eta ikasi dituztenen artean.

Aurreneko eleberritik bigarreneira nabarmen jaisten du latina gehitzea, gutxi sartzeaz bestalde, *Ardi galduan* euskararekin harremanetan ipintzen du eta eginkizun hau kentzen du *Latsibin*. Bi eleberrietan azaleratzen dira erlijioa eta hizkuntza jasoa jatorri duten esaerak, eta ia beti ikasketak dituztenek adierazten dituzte.

Gaztelaniari dagokionez, harrapatu ez duen gertalekua harrapatu duenarengatik mudatzean, barneratzen ditu ele hori ama-hizkuntza dutenak eta kontakizunean erabilitako mintzaira ezezagun dutenak. Bi istorioetan egoera soziolinguistikoaren aztarnak lagatzen ditu eta landa giroa kalearengatik ordezkutzen duenean, ikasketak dituzten eta ez dituzten euskaldunak bebizten ditu elearen ezagueran. Ikasketak dituztenek soilik gainditzen dituzte beren ama-hizkuntzaren sistema fonikoak erasandako baldarkeriak gaztelaniaren ebakeran.

Frantsesa ez da barruratu istorioak garatzen diren tokietara, eta ailegatu den gaztelaniaren bidez argitzen da euskarazko berbaren esangura.

Berez, aztergai den bitartekoa egilearen eskutik dator, hain zuzen, musika zein hizkuntzak oso erakargarri zituelako Azkuek. Zaletasun horiek direla eta, asko landu zituenez, bazuen gaitasunik eta irizpiderik alor horiei buruz. Bi kontakizunetan daude erbesterraten diren pertsonaiak, indianoez gain, halakotzat jotzen ez den *Ardi galduako* Medel eta *Latsibin* musika-ikasketak hobetzeraz Milanera joaten dena. Idazleak *Ardi galduako* pertsonaia nagusia bidaltzen du Kaliforniara zehazteko euskaldunarentzat ingelesa dela bigarren hizkuntzarik probetxuzkoena, eta bestelako zioarengatik igortzen du Anton Imaz Milanera, ez italierarengatik, baizik eta musikarengatik. Bi istorioetan musikaren berri duten eta kantatzen duten pertsonaiak egon izanagatik, ez Kalifornian bizi izandakoak, ezta beste inork ere aukeratzen du ingelesezko kantarik edo konposiziorik. Gaineratutako mintzaira orotan dago musika iturri duen izenbururen bat, ingelesez eta grekoaz izan ezik. Sustatzaile desberdinak dituzte ingelesak eta italierak, idazleak zituen bi grinetak bakoitzean kokatuz: mintzaira eta musika.

Ardi galduan elizkizunetako musikari bakarrik oratu ostean, *Latsibin* profanoa nagusitzen da, erlijio-musika bitara murriztuz: bata, latinez; bestea, gaztelaniaz. Gatikako sakristauak lokarri estua badu musikarekin eta honekin elkartzen diren alderdikide karlistak musikazaleak badira, justifikatuta dago kantatzen jardutea, eta alde horretatik liberalak menderatzen badituzte ere, hauek ere lorratza uzten dute ikasketak dituztenen medioz. Hortaz, ontzaileak musikaren gaia bereziki babesten dituen pertsonaiei eskaini arren, ez die ezabatzen gogoko ez zituen portaerak dituztenei.

Ingeleseko hitz bat salbu, *Ardi galduan* emendatutako ele guztiak araua gordez idazten dira, eta *Latsibin* beste bide bat eraikitzen du, ebakera euskarri duena, behin frantsesa hor ipiniz eta gaztelaniaren bi dialekto jasoz, euskaldunena eta andaluziarrena. Euskara bateratua erakustea xede zue-
nean, nahitaez doi jokatzeko premia zuen, eta asmo horrekin ez jarraitzean askatasunaren jabe zenean era honi heltzen dio.

Esan denez, mintzaira batbederaren bultzatzailea ez da berdina. Kontakizuna garatzen diren tokietan horietako bat besterik ez da bertako euskara baldintzatzen duena: gaztelania. Zalantzarik gabe, hizkuntza hori da istorioaren bilakaeran parte hartzen duena, ez osterantzekoak. *Ardi galduan* Leonen meza berria larunbatez Lasarteko komentuan egitea erabaki duenez bere izeba Isabelek, eta hor igandean izan ezik gaztelania erabiltzen delako, Azpeitiko apaizak ukatzen du aitabitxi izatea; *Latsibin* ele horrekin zipriztintzen dira liberalei egindako salaketak. Haatik, ez du ezartzen korapiloaren muinean, *Ardi galduan* Leonen saminaren eragilea ez delako aitabitxia ordezkatu izana, aita ardi galdua izatea baizik, horregatik galtzen du nahi zuen destinoa, eta *Latsibin*, hauteskundeetan aurrez aurre jartzen diren bi alde-takoek txertatzen dutelako gaztelania, karlistei politikaren gaian euskarara mugatuz.

Ardi galduan zuen helburuarengatik ezinbesteko zuen hitz bakoitza neur-tzea; ez, ordea, *Latsibin*. Bietan asko zaintzen du kontakizunerako aukera-tutako mintzaira, baita kode bateratua bizkaierarengatik mudatzen duenean ere. *Latsibin* kontatutako istorioa dela eta, justifika zezakeen, nola tokian tokiko moldeak biltzea, hala beste euskalki baten edo euskararen gaiztoaren aztarna lagatzea, hain justu, gertalekua Bizkaiko merindade bat baino gehia-go delako, erdaldun hutsak barneratzen dituelako. Alabaina, taxu horiek sartzea baztertzen du. Ondorioz, euskararen aldaerak saihesten dituen berak, gaineratzen ditu gaztelaniazkoak, tokian tokiko moldeak (El Rácimo / La Piña) zein bi dialekto sartuz, euskaldunena eta andaluziarrena. Andaluziarrena bizkaitar baten ahotsetik irten denez, beste norbaiti eman zekio-keen beste euskalki baten erakuskaria itsastea.

Bizkaitarrei nahiz kanpokoei egileak bizkaiera bikaina egozten dienez, dirudienez, euskara babestera dator, euskalkia bera bermatzera eta kode

bateratua duen gaztelania modu horietara zabaltzea baliatzen du pertsonaiaren izaera bereizteko.

5. Bibliografia

AZKUE, R. M.^a (1888). «Grankanton arrantsaleak» faksimilea in J. A. Arana Martija, (arg.) (1988), «Grankanton arrantsaleak», *Euskera*, XXXIII (1988) 379-389. Argitalpena, *Idatz & Mintz*, 21 (1991): 4-6.

——— (1893). *Lenengo irakurgaia. Bein da betiko* in I. Pagola, (arg.) (1986), *Bein da betiko. Batxi guzur*. Donostia: Erein.

——— (1897). «Batxi Guzur» in I. Pagola, (arg.) (1986), *Bein da betiko. Batxi guzur*. Donostia: Erein.

——— (1918). *Ardi galdua* in E. Perez, A. Toledo, (arg.) (2018), *Ardi galdua*. Bilbo: Euskaltzaindia.

——— *Latsibi*, in M. ALBERDI, (arg.) (1989). *Latsibi*. Bilbo: Euskaltzaindia eta Labayru Ikastegia.

CORCUERA ATIENZA, J. (1979). *Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco (1876-1904)*, Madrid: Siglo XXI.

ERKIAGA, E. (1985). «Azkueren 'Ardi galdua' zentsurape 1918gn.», *Idatz & Mintz*, 9 (1985): 32-33.

FUSI, J. P. (1975). *Política obrera en el País Vasco (1880-1923)*, Madrid: Ediciones Turner.

VOLTAIRE, (1878). *Dictionnaire philosophique. Oeuvres complètes*. Vol. III, Paris: Garnier.



Liburu aipamenak

Euskera. 2022, 67. Bilbo
ISSN 0210-1564



Zerbitzariren idazlan hautatuak

Jabier Kaltzakorta
Euskaltzain osoa
Deustuko Unibertsitatea
2022an argitaratua, 640 or.
ISBN: 978-84-124296-8-8
Argitaletxea: Euskaltzaindia

JORAJURIA ITURRIA, Peio
Kazetaria eta *Herria* kazetako kolaboratzailea

Ipar Euskal Herriko euskaltzale zenbaitek doi bat ezaguna genuen Jean Elizalde *Zerbitzari* (1883-1961). Doi bat bakarrik. Eta gehienek, egiari zor, osoki ezezaguna. Bagenekien azkaindar seme hori apaiza zela, *Eskualduna* astekariko kronikari aparta izan zela ere, bai eta Eskualtzaleen Biltzarreko idazkari leiala urte luzetan. Baina mamira sartuz, egia erran, gauza guti genekien hartaz. Hutsune hori handizki betetzen laguntzen gaitu Jabier Kaltzakorta euskaltzainak argitaratu berri duen *Zerbitzariren idazlan hautatuak* liburuak (Euskaltzaindia 2022).

Liburu gotorra

Sarako Idazleen Biltzarrean aurkeztua izan zitzaigun obra eder hori, 2022ko apirilean. 640 orrialdeko obra da, baina ez luke gotortasun horrek irakurlea beldurrarazi behar. Hizkiak handiz etzanak dira paperean, eta irakurketa erraza da, Zerbitzariren euskara bikainetik iturriko uretik bezala atseginez edaten baita. Bi zati nagusi dauzka liburuak. Lehen partean, Zerbitzariren biografia dugu aurkitzen: behar-beharrezko orriak, ondotikako

Euskera. 2022, 67. 157-161. Bilbo
ISSN 0210-1564

idazlearen luma aparta hobeki gureganatzeko. Eta bigarren zatian, Jabier Kaltzakortak hautatutako Zerbitzariren lan batzuk zaizkigu zerbitzatuak. Haren lan nasaian hautaketa eginik, paratzailearen arabera autorearen idazluma hobekienik islatzen dutenak. Liburuak zati hori du garrantzitsuena, horretan baitatza argitalpenaren balio nagusia.

Nor ote genuen Jean Elizalde?

Lehenik eman diezaiozun gizonari behakoa. Jabier Kaltzakortak *Zerbitzari* idazlea digu gehiago aurkezten Elizalde gizona baino. Ohar batzuk egiten dizkigu, halere, gizonaz. Besteak beste, Luis Villasantek 1957an erranikoa ekartzen digu. Ordurako 74 urte zituen Jean Elizaldek eta “gizon argal, gihartsu eta zainarta” zela zioen Villasantek, eta ere “pentsaera zaharrekoa”. Hara hitz gutitan ongi laburbildua gure gizona. Hain zuzen, duela sei-zazpi urte Jean-Claude Bringuier eta Hubert Knapp zinemagileen *Le curé basque de Gréciette* dokumentala (31 min) ikusteko zortea ukan genuen (Parisko INA institutua –Institut National de l’Audiovisuel– da film horren jabea). 1958an ekoiztako dokumental zoragarria, zati nagusiena Gerezieta apaietzeko inguruan grabatua. 75 urte zeuzkan orduan Zerbitzarik eta Gerezieta erretore zen. Ikusten dugu bere sotana beltzarekin, kapelua beti buru gainean, begitarrea eta ezpainak irribarretsu. Gizon argal eta zaildua, Villasanteren erranak osoki baieztatzen dituen. Filmegileak galdekatzen duelarik, den bezalakoa agertzen da, arraia, zorrotza, *voltairien* dio elkarrizketatzaileak (Voltaire frantses idazlearen zorrotasun berdintsukoa), zirtolaria, umoretsua, bere buruaz besteenaz bezala trufatzailea. “Gazte sortu nintzen eta gazte hilko naiz, hondakin zahar bat baldin banaiz ere”.

Handik hiru urtera hilen zen, bihotz-antsiak jota. Haren heriotzaren karietara zabaldu ziren lekukotasunek zertxobait gehiago ere agertzen digute. Piarres Lafittek *Herria* astekarian (1961-05-11) bere gisan omendu zuen Zerbitzari: “Bazuen maiz zerbait istorio bitxi kontatzeko, ez zuen parerik lan hortan (...). Osagarri onekoa, hedea bezain zaila, ala bizikletan, ala pilotan, ala balonean ezin lehertua zen (...). Pilotan ez baitezpada plaza gizon goxoa;

nahi zuen irabazi, eta kukuak ez bazion joiten, harrigarriko haserrealdiak biltzen zituen, dena oihu eta mehatxu (...) baina plazako kexuak plazako errautsak estaltzen zituen”. Hau ere gehitzen du Lafittek: “Eskuara bazabilan nehork ez bezala: errexa, lañoa, garbia, polita”. Eta artikulu berean ikasten dugu ere André Madré hazpandar jeneralak *Gure sorlekua* filma ekoiztu zuelarik 1956an, Zerbitzari izan zela euskarazko gidoilaria. Zoritxarrez, Josu Martinez bizkaitar zinemagileak Parisen aurkitu zuelarik film hori (ikus *Gure sorlekuaren bila* dokumentala, 2015), soinua desagertua zitzaion, ez baitakigu nolako gidoia landu zuen Zerbitzarik.

Aberri handia, aberri ttipia

Zerbitzari pentsaera zaharrekoa zela zioen Villasantek. Lekukotasunek hain zuzen erakusten digute asko mailatan modernitateari aiherr zegoela. Bestalde, Frantziaren aldeko ideologia ez zuela ezkututzen dio Kaltzakortak. Irakurtzea baizik ez da haren 1914ko Gerlako kronika saila, “gu frantsesak”, “Biba Frantzia!” eta horrelakoak, hortaz konturatzeko. Eneko Bidegainek hori bera digu erakusten *Gerla Handia, muga sakona* liburuan (Utriusque Vasconiae, 2009), Elizalde bezalakoentzat Frantzia zelarik aberri handia eta Euskal Herria aberri ttipia. Ideologia horretan, sortze-urte bereko Jean Ybarnegaray garaztar diputatuaren ildotik zebilen, hura ere gerlan ibilitakoa, adiskide handi zeukana, “gerlari gaitza”, “gure deputatu bipil eta suharra”. Eskuin muturrekoa zen “Ybar” –hala deitzen zuten lagunek– Vichyko ministro izana. Eta, hala ere, hari buruzko adiskidetasunari bururaino leial egon zitzaion J. Elizalde. “Francozale eta Ybarnegarayzale” zela Zerbitzari zioen Piarres Charrittonek ere (*Jakin* 97: 1996), halaber *Eskualduna* astekaria bere ibilbideko azken hamarkadan. Astekari hau debekatua izan ondoan, kolaborazionista izateagatik, *Herria* astekaria sortu zutenen artean aurkitzen badugu ere Zerbitzari, Piarres Lafitte, Jean Saint Pierre *Anxuberro*, Jules Moulier *Oxobi* eta horien ondoan, beti halako sumindura zerbait izan da Lafitteren eta Elizalderen artean. Alabaina, Ybarnegarayk etsaitzat zeukan Piarres Lafitte. Hala ere, Lafittek berak adierazi duenaz: “Zerbitzarik ez bagitu ere beti sustengatu, kazeta huntan ez diogu behin ere sendiarazi (...) oroituz abiatzean eman zaukun eskukaldi onaz” (Piarres Lafitte, *Nafar lapurtar idazle aipatuena*, *Elkar* 2001).

Antologia

Idazki andana handia badu utzirik Jean Elizalde, besteak beste *Eskualduna*, *Gure Herria* eta *Herria* aldizkarietan. “Izengoiti askoren azpian ezkutatatu” zela dio Kaltzakortak, gehienbat *Zerbitzari* erabili zuen (bere idazkiak *Zure zerbitzari*, J.E. zituen askotan izenpetzen), baina ere *Azkaindarra*, *Bilharria*, *Haur prodigoa*, *Nornahi* eta beste. Zerbitzariren lan hautatuak zaizkigu liburu honetan eskainiak. Kaltzakortari iruditu zaizkion esanguratsuenak, batez ere prosazkoak, baztertuz aldiz bertso, antzerki eta itzulpenak. Piarres Larzabalen arabera, “Zerbitzariren antzerkiak eta haren pertsuak ez ziren hain egokiak”. Prosa, aldiz, paregabea zuela dio Kaltzakortak: “Elizalde pro-sistari ez diogu akatsik aurkitzen”, lapurtar idazlea euskarazko estilistarik handienetarikoa bat zaiola. “Axularren lapurterarekin ez du zerikusi handirik”, Zerbitzarirena modernoagoa da eta batez ere ahozkoa, esan-moldeen bidez ahozkoatasunari izugarriko indarra diola ematen. Eta aitortu behar da, testu horien irakurtzea atsegin handia dela, bereziki guretzat Iparraldekoontzat, edo bederen lapurtar edo baxenabartar garenontzat.

Zerbitzariren gerlako kronikak ditugu lehenik aurkitzen, bi alditan idatzitakoak, batetik gerla tokietatik zuzenki bidalitakoak eta bestetik hamabost-hogei urte geroago kronika horiek berak librekiago berridatzirik, osatuagoak (bigarren kronika horiek agertuak ditu ere Patri Urkizuk, *Jean Elissalde, LVII.a gerlan* titulupean, Alberdania, 1995). Alabaina, gerla tokitik ez zitekeen argitasun askorekin idatzi, armadako buruzagiek debekatzen zuten-eta. Arrazoi osoz ezarri ditu beraz Kaltzakortak bi lan horiek: ez da lan bera, nahiz errealitate dorpe beraz mintzo den. Zerbitzari guzia aurkitzen da kronika horietan, umoretsua, arrallanta, zorrotza, krudela batzuetan (“anglesak ez dio alemanari eperik utziko, tripako hertze guziak kendu arte”). Alemanen kontu ezartzen ditu gaiztakeriak, ez frantsesen kontu, eta frantsesetan euskaldunak direla balentria egile handienak dio ahoan bilorik gabe, gerlari ihes egin dioten euskaldunak, haatik, hastio dituela. Ezin uka halere Gerla Handiko euskal kronikari aparta izan dela Zerbitzari, Jean Etxepare eta Jean Saint-Pierre ere hala izan ziren bezala.

Ondotik aurkitzen ditugu erlisioneari lotutako idazkiak: *Théophane Vénard dohatsua*, *San Frantses Xabier...* eta ere, alor horri lotuak, bi bidaia-kro-

nika, *Metsikorat* bata, *Erromarat* bestea. Beti ere modu jostakinean idatziak, alaiki irakurtzen diren lerroak, salbu haatik zenbaitetan botatzen dituen iritzi pertsonal soberakinak, gaur egun aldizkari batek ezin litzakeenak onartu. Mexikarrak, adibidez, bereziki indianoak, jende alferrak eta zikinak zaizkio, gezurtiak (“hatsa bera gezurra dute”), mozkortzaileak, ohoinak... Gaur egungo irakurleak behar du jakin, gisa horretan, bere irakurketan iritzi horien gainetik aitzinatzen. Villasantek zioena, “pentsaera zaharrekoa” zela, bete-betean agertzen da esaldi horietan; ideologia oso hertsikoa zela dudarik ez da. Baina, aldi berean, zer deskribapen politak! Erromarako beila bide hori ere gozagarriki du kontatzen, trenean doazelarik batzuen eta bertzeen zurrungetaraino.

Eta hor ditugu ere beste kontakizun batzuk, *Etienne Pellot* hendaier itsas-turiaz, garaiko *Pilotariak* (Elizalde bera pilotaria izana zen, xisteralaria, bere mentor Ybarnegaray bezala), bai eta bost artikulua libre (hala nola Euskaltzaindiari buruzkoa, bera euskaltzain izendatua izan aitzin idatzia, dena gatz eta piper) eta bederatzi ipuin. Hots, Zerbitzariren dohain zabalen itzulia egiten dugu horiek guzietan. Gehiago irakurri nahi duenak jo dezake ere Piarres Charrittonek paratutako *Azkaine gure sorterrria* liburura (Elkar, 1985), edo ere Henri Duhau senperrak paratutakora: *Bahmar deitu salbaiak*, Pierre Dourisboure beskoiztarraren obraren itzulpena (Euskaltzaindia 2014).

Liburu honetako kronikak argitaratzerakoan, autorearen ahal bezain oinarri hurbilenetara jo du Kaltzakortak, eskuizkribuetara, aurkitu dituelarik, lehen iturburutik hurbilen gelditzeko. Alabaina, aldizkarietan agerturiko testuak nonbait jada kutsatuak ditu inprimaketa lanak. Bestalde, orduko idazmoldea atxiki du Kaltzakortak, *ch*, *ph* eta beste, Iparraldeko orduko tradizioari leial egonez. Hautu bat da. Pertsonalki, horrelako testuak nahia go ditut irakurri gaurko ortografiari egokituak, baina egia da jatorrizko idazmoldearen irakurketak ere baduela bere xarma, bete-betean egoten baikara orduko giroan. Dena den, Kaltzakortak aitortzen baitigu arras maite duela estilo araz eta ederreko idazle lapurtarra, guri ere maitarazten digu, hertsikeriak aparte, haren idazmolde aberats eta zoragarria. Eskerrak zuri, Jabier!



One hundred years of Irish Language Policy, 1922-2022

John Walsh

School of Languages, Literatures and Cultures (Galway, Ireland)

2022an argitaratua, 372 or.

ISBN: 978-1-78997-892-6

Argitaletxea: Peter Lang

ARTZA, Jon

Euskera agerkariko teknikaria

Irlandak azken mendean –Independentzia eskuratu eta gaur egun arte– garatu duen hizkuntza-politikaren azterketa egiten du John Walshek. Azterketa atalka egiten badu ere, ibilbide kronologiko bat irudikatzen du, mende osoko bilakaera historikoa azaltzeko oso baliagarria dena. 1922-2022 aldian irlandarak bizi izan dituen gorabeherak harilkatu eta irlandar hizkuntza biziberritzeko ahaleginen bilakaera historiko-kronologikoa egiteko gaita da. Ibilbide horretan funtsezkoak izan diren ekintzak, gertaerak, erabakiak... aztertzen ditu. Horietatik, nire ustez, garrantzitsuenak izan direnak jasoko ditut, hein baten, irlandar hizkuntzaren iragan hurbila, gaur egungo egoera, eta zergatik ez, etorkizuna ulertzen saiatzeko.

Argi utzi behar da Irlanda estatu libre bilakatu zenean, 1922an, irlandera oso egoera txarrean zegoela. Populazioaren % 18k hitz egiten zuen, batez ere uharteko mendebaldeko Gaeltacht-etan. Hiztun horiek denak ingelesez ere mintzo ziren eta, maiz, nahiz eta ongi hitz egin ez, nahiago izaten zuten ingelesez mintzatzea. Belaunaldien arteko transmisioa eteten hasirik, hizkuntzarekiko atxikimendu-maila oso baxua zen. Irlandaraz mintzo ziren eskualde hauek nekazari- eta arrantzale-eremuak ziren, txiroak. Beraien

Euskera. 2022, 67. 163-171. Bilbo

ISSN 0210-1564

lehentasuna pobreziatik ateratzea zen, eta berdin zitzaien horretarako zein hizkuntza erabili behar zuten.

Beste alde batetik, Gaeltacht-etatik at, irlandera mintzo zirenak oso gutxi baziren ere, hauek Liga Gaelikoan eta independentziaren aldeko mugimenduan oso kide aktiboak, hiriguneetako pertsona eskolatuak ziren. Beraz, ez zen harriztekoa Irlandako Estatuaren zuzendaritzan zeuden buruzagi asko, irlandera mintzatzeaz landa, hizkuntza biziberritzearen aldeko zale porrokatuak izatea. Adibide gisa datu bat: lehen zazpi ministroetatik (denak gizonak) hiru irlandera mintzo ziren. Cosgrave presidentea ere irlandera duna izan bai, baina ezagutza apala zuen.

Kontuan izan behar da urte horietan soziolinguistika diziplina akademiko gisa garatu gabe zegoela, eta, beraz, hainbat neurri eta erabaki hartzeko ez zela oinarri zientifikorik. Egoera horrek asko baldintzatu zuen irlandera biziberritzeko neurrien eraginkortasuna eta ebaluazioa bera. Galtaecht-etako (besteak beste, han irlandera sustatzeko) Batzordea eratu zenerako Eoin MacNeill hezkuntza ministroak –irlanderaren aldeko intelektual eta ekin-tzaile historikoa– dimisioa emana zuen, eta John Marcus Sullivanek –ez hain aldekoa– ordezkatu zuen. Batzordeak bere lana egin zuen eta 1928an *White Paper* deitu zuten neurri-sorta abian jarri zen. Aurrez aipatu dudan gisan, lurralde gaelikoen etorkizun ekonomikoa kezka nagusi izanik, horren ondorioz hasieran proposatu ziren hainbat neurri bertan behera geratu ziren; hots, 82tik 30 baino ez ziren onartu. Horien artean: lehen hezkuntzan klaseak emateko irlandera jakitearen derrigortasuna, Administrazioan lan egiten duten irlandera adunak hizkuntza erabiltzeko derrigortasuna, irlandera irakasleentzako hobariak, posta zerbitzuan lana eskuratzeko irlandera mintzodunek lehentasuna izatea... Onartu ez zirenen artean, adibidez, irlandera gaitasuna eskuratzeko gai ez ziren irakasleak Gaeltacht-etatik at lan egitera derrigortzea, edota irakasleek irlandera jakitearren zituzten sariak arlo publikoko beste sektore batzuetara hedatzea. Halaber, eta garapen ekonomikoari balaztarik jarri nahi ez izatearen aitzakiarekin, ez zuten onartu Gaeltachtetako lan-hizkuntza irlandera izatea.

Osoa adierazgarria da, 1937an Ó hAnnracháin izeneko irakasle batek Gaeltacht-eko nekazari batekin gaelikoz izandako elkarrizketa:

‘Ní fheadar’, ar seisean. ‘Tá a lán daoine ag iarraidh an Ghaedhilg d’fhoghlúim anois, agus bhí a lán ad iarraidh í chaitheam uatha an uair sin. Bhíodh na sagairt agus na daoine móra i gcoinnibh Gaedhilge nuair a bhíos óg, agus tá cuid acu anois ar buile chun í thabairt thar n-ais arís. Is deacair dom leithéid-se an scéal a thuisgint’. (Ó hAnnracháin 1937)

(Ez dakit –esan zuen– orain pila bat jende ari da irlandera az ikasi nahian eta sekulako ahaleginak egiten ari dira. Apaizak, eta bestelako jende inportantea irlanderaren aurka zeuden erabat ni gazte nintzenean, eta orain aztoratuta daude irlandera buelta dadin. Ni bezalako jendearentzat zaila da ulertzen).

Batzorde honek egindako ibilbidearen eta harturiko neurrien eraginkortasunaren harira eztabaida akademikoa izan arren, nahiko onartua da tesuinguru intelektuala atzerakoia zela garai hartan, corpus soziolinguistiko landurik ez zela, eta lehentasun osoa ekonomiak zuela. Batzuek neurrien garrantzia gorai patuko dute, beste batzuek, ordea, neurriak apalak eta eraginkortasun gutxiak izan zirela esango dute. Iritzi ezkorra gorpuztu eta sustatu zutenen artean Fianna Fail alderdia eta Eamon de Valera, bere buruzagia, zeuden. Alderdi hau Irlandak eta Erresuma Batuak sinatu zuten bake-tratatuaren aurkakoek sortu zuten. Tratatu honek, labur esanda, Irlanda burujabea ahalbidetzen zuen, baina Ulster lurralde historikoko bederatzikonderritatik sei Erresuma Batuen esku geratu ziren. Horrek Irlandan gerra zibila piztu zuen eta tratatuaren aldekoak irabazi zuten, De Valera eta enparauak galdu.

Fianna Fail alderdiak boterea eskuratu zuen 1932an, eta nahiz eta egia den irlandera sustatzeko neurri ausartagoak hartu zituztela, 1950eko hamarkadara arte ez zen hizkuntza-politikaren norabidea aldatu.

1958an irlandera estandarizatu onartu zen. Hasiera batean zenbait dialektotako mintzodunak ez ziren erabat akort, baina apurka-apurka bere bidea egin zuen. Bestalde, 1950eko hamarkada arte eta harturiko neurrien ondorioz, hiztun kopurua nabarmen hazi bazen ere, 1960ko eta 1970eko hamarkadetatik aurrera hazkuntza hori moteltzen hasi zen, eta horrek hizkuntzaren biziberritze politikak auzitan jartzea ekarri zuen. R. Ó. Murchú soziolinguista irlandarraren ustez, oso bitxia da hiztun kopurua ugaltu eta

lehen emaitzak lortzearekin batera, une berean, Estatuak berak indarrean jarritako hizkuntza-politika auzitan jartzea. Garbi dago garai hartan ez zekitelako egoera soziolinguistikoa iraultzea zein prozesu luzea eta nekeza den:

Ó Murchú points to the irony that just when the results of the language in education policy were beginning to take effect in the second half of the century, the state started to dismantle the measures it had hoped would work within a reasonably short period. (Walsh 2022: 146)

1970. urtean Fianna Gailek eta Alderdi Laboristak osatzen zuten koalizio gobernua Administrazioan lan egiteko irlandararen gaitasuna adierazten zuen agiriaren, *civil service-ren*, derrigortasuna bertan behera utzi zuten. Halaber, egia da jite horretako neurriak 1960ko hamarkadan hartzen hasi zirela, Fianna Fail boterean zela. Hainbat aldagaik eragin zuten norabide aldatuta, eta lehenbizi oso aintzat hartu behar da liberalismo ekonomikoaren aroa zela. De Valerak politika protekzionista sustatu bazuen ere, kargua utzi eta bere alderdikide zen Seán Lemasek hartu zuen presidente (*Taisoeach*) kargua. Bere eskumako eskua T. K. Whitaker finantza ministroa zen, eta biek liberalismoaren doktrina ekonomikoan oinarrituriko plangintza ekonomikoa jarri zuten abian. Alegia, arlo pribatuari eman zitzaion lehentasuna, enpresariak eskuak aske behar zituzten, estatuak ez zuen interbenitu behar eta are gutxiago hizkuntza-politikako irizpideak edo neurriak eskatu.

Lemas presidentek ez zuen inondik ere bere aurreko kargudun De Valeraren irlandararen aldeko jarrerarik. Desberdina zen Whitakerren kasua; irlandaraz oso ongi mintzatzen zen arren, ez zegoen ados hizkuntza biziberritzeko politikekin. Bere argudioa zen politika horiek irlandarak ingelesez ordezka zezan nahi zutela eta hori garapen ekonomikorako oso kaltegarria zela. Egiari zor, Gaeltacht batzordeak *White Paper* delakoan jaso zituen neurrietan inon ez zen halakorik esaten.

Testuinguru horretan, 1965ean Irlandako Legebiltzarrean, *Oireachts-en*, hurrengo urteetarako hizkuntza-politika birdefinitzeko ekimena aurkeztu zuten: *White Paper on the Restoration of the Iris Language*. Plangintza horren zio nagusia gaelizazioaren ikuspegi historikoa alboratzea eta elebitasunean indarra jartzea zen, nahiz-eta azken horretan, aurrez ere adostasuna zegoen. Ekimen berriak irlandera hizkuntza nazionala zela esaten jarraitzen bazuen

ere, ingelesak irlanderaren garapen sozioekonomikoan zuen garrantzia eta epe labur-ertainean hizkuntza nagusia izaten jarraituko zuela azpimarratzen zituen. Halaber, irlandera jakiteagatik ematen ziren sari edota hobariak kendu egin ziren.

Aro historiko honetan beste gertaera bik hartu zuten aparteko garrantzia, hein handi batean konektatuak zeudenak: maila akademikoan soziolinguistika diziplinak aurrerabide nabarmena egin zuen, eta hizkuntza gutxituen biziberritze prozesuak, jada esperientzia bat metatua izanik, corpus adierazgarri bat sortzen hasi ziren. Horrek guztiak hizkuntza-politikaren plangintza eraginkorragoak abian jartzea ahalbidetu zuen. Garaiko Hezkuntza ministroa, Patrick Hillary, horren jakitun zen, eta urteetan Estatu Batuetan ikerlari izan zen Colman Ó HualLacháin frantziskotar soziolinguista izendatu zuen aholkulari gisa. Handik gutxira, 1967an, Irlandako Hizkuntza Instituta sortu zuen: *Institiúid Teangaolaíochta Éireann* (ITÉ).

Erakunde horrek gonbidaturik, Joshua Fishman, soziolinguistikaren sortzaileetako bat, 1969an Irlandara joan zen bisitan. Fishmanek ordura arte aurrera eramanean zen hizkuntza-politika aztertu, eta gomendio nagusi bat eman zuen: hizkuntza-politika profesionalizatu egin behar zela. Horrek esan nahi zuen politika horien gidaritzaz soziolinguistikan adituak ziren pertsonak eramanean behar zutelako, plangintza zehatzak abian jarri eta lortutako emaitzak ebaluatu eta neurriak birplanteatu behar zirela. ITÉ ez zen paradigma berri horri erantzuteko gai, eta Comhairle na Gailge (CnG) irlanderaren aldeko batzordeak ordezkatu zuen. Batzorde horrek egin zuen lehen gauzetariko bat izan zen Martín Ó Murchú Dublineko Trinity Collegeko hizkuntzalariari txosten bat eskatzea. Hizkuntzalariak serio hartu zuen bere lana, eta J. Fishman, J. Gumperz eta ospe handiko beste soziolinguista batzuen ekarpenak bildu ondoren, *Language and Community* txostena idatzi zuen. Argi adierazi zuen irlandera menpekotasun linguistiko egoera garbian zela eta horri buelta emateko urratsak egin behar zirela.

CnG batzordearen hurrengo urratsa Irlandako Finantza Ministerioak ikergune bat sortzea ahalbidetzea izan zen: *Committee on Irish Language Attitudes Reserach* (CILAR). Bertan hizkuntzalari prestigiotsuak bildu ziren, Mairtín Ó Murchú eta Pádraig Ó Riagáin, kasurako. Hauen eta Adminis-

trazioaren artean zubi-lanak egiteko Séamus Ó Ciosáin izendatu zuten. Ikerketa talde horrek hizkuntza-politikaren garapenari oinarri sendoa eman zion, baina herritarren irlandereko kontzientzia pizten ez zuten asmatu, eta, horretarako, 1980ko hamarkada arte itxaron behar izan zen.

Aurrez esan bezala, Administrazioan eta Hezkuntzan irlandera sustatzeko neurriek hainbat hiritarren kezka piztu zuen, eta hizkuntza askatasuna aldarrikatzen hasi ziren *Language Freedom Movement* (LFM) elkarteak bilduta. Horren ondorioz, hezkuntza arloan irlanderearen derrigortasuna, irakasleei emandako hobariak eta tankera horretako neurriak kendu zituen gobernuak. Erabaki horiek ez ziren irlanderezaleen gustukoak izan, are gehiago, beren burua diskriminatua ikusten zuten, ezin baitzuten Irlandan irlanderez bizi, besteak beste, legediek ez zietelako horretarako eskubiderik onartzen. Alegia, konstituzionalki irlandera hizkuntza nazionala bazen ere, Administrazioan, Hezkuntzan, Osasun Zerbitzuan... irlanderez artatuak izateko eskubideak ez zitzaizkien onartzen. Horren ondorioz, 1970eko hamarkadaren bukaeran eta 1980ko hamarkadaren hasieran protesta- eta aldarrikapen-mugimendu indartsua jarri zen abian, Europako Mendebaldeko beste lurraldeetan gertatu zen antzera: Gales, Katalunia, Euskal Herria... Horrek guztiak bere isla instituzionala izan zuen, eta 1977an CnGk “Irlandar Hizkuntzaren Eskubideen Adierazpena” argitaratu zuen. Bost oinarrizko printzipio jasotzen ziren:

- a) Irlandarak ingelesak zituen eskubide eta estatus berak izatea.
- b) Haur guztiek irlandera ikasteko eskubidea izatea.
- c) Gaeltacht lurraldeak babestu eta sustatzeko politikak bideratzea.
- d) Gobernuak irlanderearen aldeko politikak sustatuko zituela bermatzea.
- e) Nazioarteko beste hizkuntza gutxituei babesa eta elkartasuna adieraztea.

1980ko hamarkadan *Boarn na Gaeilge* (BnG) irlanderearen aldeko gobernu-erakundea sortu zen, eta *Plan for Irish* 1983-86 ekimena abian jarri zuen. Hala ere, ekimen hori ez zen gai hizkuntza-eskubideen aldeko kanpainaren helburuei erantzuteko, eta, ondorioz, CNGk beste protesta-kanpaina bat abiatu zuen, eta udaletxe askotan mozioak aurkeztu zituzten. BnG erakundeko arduradun eta teknikariak ere aldarrikapen hauekiko sentiberak ziren, eta abiadura bizkortzeko deliberoa hartu zuten. Helen Ó Murchúren gidaritzapean BnGk politika eta neurri ausartak eraman zituen aitzina.

